


# ...eta **kitto!**

782 zkia. 2011-XI-11

ASTEKARIA

TOKIKOM



## Arbasoen “AHOTSAK” ikasgeletara



Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIOPTICAS**  
Ilehena zerbitzu optikoetan



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Antonio Murillo doktorea**

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

**Ainhoa Zulueta doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

**Susana Sierra doktorea**

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

**ORDUTEGIA:**





Astelehenetik ostegunera: 10-14 / 16-20h

Ostiraletan: 10-14 / 15-19h

**IRAZABAL HORTZ-KLINIKA**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 35 52

[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com) - [info@clinicairazabal.com](mailto:info@clinicairazabal.com)



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**erredakzioa@etakitto.com  
komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**elkartea@etakitto.com  
normalizazioa@etakitto.com**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Maider Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Ahotsak

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGLIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-  
dizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

**IBAI.-** Erreka zabala, itsasora heltzen dena. Eibarren gutxi erabiltzen da, gehiago erreka. "Eibarren errekoa eta Plazentzian ibaixa".

**IBAIA BEHIAN ETORRI.-** Ibaiak ur gutxi duenean esaten da. "Ibaia behian etorrenian be, ixa beteko urak izaten ziran".

## ESKUTITZAK

### MURRIZKETA GEHIAGO EUSKARAZKO HEDABIDEENDAKO

Nafarroako euskarazko hedabideek eta Topaguneak, Euskara Elkarteen Federazioak, salatu nahi dugu beste behin ere Euskarabideak murrizketak ezarri dizkigula. Irailaren 7an Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuen aurtengo aurrekontuetan 327,25 milioi euroko gastu murrizketa egingen zuela. "Doikuntza" horien helburua aurrekontuaren egonkortasuna bermatzea dela azaldu zuten. Iragarpen horrek gizarteko arlo asko ukitu ditu hezkuntza, osasuna eta beste.

Eskarmentuak erakutsi digu halakoetan euskarari zuzendutako diru-sailak ez direla onik ateratzen. Iragarpena jakinarazi zenetik zenbaitetan Euskarabideara informazio eske jo genuen. Ez ziguten ezer erantzun. Edo bai, esleitutako diru-laguntza kobratzeko dokumentazioa aurkezteko epea aurreratu zutela.

Aste honetan iritsi da murrizketaren jakinarazpena. Maximino Gomez Serrano Euskarabideako zuzendari kudeatzaileak azaldu digunez, Nafarroako Gobernuak aurrekontuak "doitzeko" hartutako erabakiak "Euskararen gaineko programak komunikabideetan" kontusailari ere eragin dio. Euskarabideak jakinarazi duenez urriaren 31ra arte justifikatutako gastuak ordaintzeko adina diru badu, baina urteko azken bi hilabete-erako aurreikusia zuen dirurik ez dago.

Euskarabideak esleitutako diru-laguntzak bi epetan

ordaintzen ditu. Diru-laguntzaren erdia jakinarazpenarekin batera ematen du, eta beste erdia gastuak justifikatu ondoren. Bigarren ordainketa horretan egingen du murrizketa Euskarabideak. Honela: Beleixe irratia (%34ko murrizketa); Esan-Erran irratia (%37); Guaixe aldizkaria (%20); Mailope aldizkaria (%34); Pulupe aldizkaria (%37); Ttipi-ttapa aldizkaria (%34) eta Xorroxin irratia (%33).

Murrizketa horiek guztiek, euskarazko hedabideok aurretik jasaten ari garen egoera ekonomiko larria areagotzen du. Hedabideok esleitutako diru kopuruak kontuan izanik egin ditugu urte guztiko aurreikuspenak. Orain, bat-batean, zati bat kentzea lehendik ahal den gure ekonomia-osasuna kolokan uzten du.

Gauza aski jakina da hedabideok ezinbesteko elementu bat garelako euskararen ekosistema mantentzeko, indartzeko eta biziberritzeko. Euskarabideari eta haren arduradun politikoei hori ahalbideratzeko, babesteko lan egitea exijitzen diegu. Horregatik, esleitutako diru-laguntza bere osotasunean ematea exijitzen dugu. Aldi berean, sektoreko aktoreekin bildu, egoera aztertu eta etorkizunerako hitzarmen bat lantzea eskatu dugu, Nafarroako Parlamentuak 2009an eskatu zuen moduan.

Nafarroako euskarazko hedabideak eta Topagunea

*asteka***HEMEROTEKA***esaldiak*

"Auto salmenten beharakadaren datuak berez izugarriak badira ere, badira beste batzuk izugarriagoak bihurtzen dituztenak: Araban %40 jaitsi da auto salmenta, baina Araban bertan luxuzko autoen salmenta %30 igo da"

(Mikel Elorza, kazetaria)

"Agian egunen batean, teknologia berrien bitartez, idazleak ez ditu argitaletxeak ezertarako behar izango. Liburuak ordenagailuan idatzi eta bertatik salduko ditu Interneten bidez, etxetik atera beharrik gabe ere"


(Mikel Hdez. Abaitua, idazlea eta irakaslea)

"Eliza katolikoaren bezeroak aldatu egin dira: sasoi bateko intelektualak galdu dituzte eta, horien ordez, atxekimendu emozionala dutenak nahi dituzte orain, hau da, fanatikoak. Horrek Elizaren soslaia aldatu eta bazterrean lagako du"

(Alberto Moncada, soziologoa)

"Aurrezki kutxa eta bankuetako langile eta funtzionario asko ezagutu izan ditut era askotariko elkarteretan boluntario lanean. Gerta daitekeen paradoxa: funtzionarioa borondatez lanean eta soldatapeko langilea apurka funtzionarizatzen"

(Andoni Egaña, bertsolaria)

**EIBARKO  
UDALA****GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA****EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO****KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## a u t u a n

### 1937-XAN JAIXOTAKUAK

Azaruaren 26xan (zapatuan) alkarrekin bazkaltzeko batuko dira 1937xan jaixotakuak: 12.00xetan Untzagan talde-argazkixa etara eta, Peña Txinberan piskolabisa hartuta, Ipurua aldiari txikiteuan ibilliko dira, 14.45etan Iruki sagardotegira bazkaltzera juan aurretik. Juan nahi dabenak 50 euro sartu biharko ditte Kutzako 2101 01091801275599090 kontu zenbakixan.

### URTEKO BATZARRA ARMERIXAN

Armerixa Eskolako Gurasuen Alkartekuak eguenian, hillaren 17xan, egingo dabe urteko batzarra, eskolan bertan, Ikasle Ohien alkartian, 19.00etan hasitta. Batzarra amaittuta eta urteroko martxari jarraituta, ikasle oneneri sarixa banatuko detse.

### IGOGAILUETARAKO LAGUNTZAK

Igogailuak jartzeko edo igogailu zaharrak kendu eta barrixak ipintzeko eta fatxadak barrizatzeko obrak egitteko Udalak emoten dittuan diru-laguntzetarako eskaeriak Pegoran presentatzeko azken eguna azaruaren 18xa izango da (egun hori barne).

## Liburutegixa Euskal Liburutegi Digitalian

Juan San Martin Liburutegixaren Eibarko Fonduaren digitalizaziñorako proiektuaren aurkezpena egiñ eben aurreko artian udaletxean. Danera liburutegiko herriko fonduaren zein patrimonixo bibliografikuaren parte diran 87 monografixa, 20.146 orrialde, euskarri digitalera pasau dittue jatorrizko dokumentuetatik abiatuta José Valderrey eta Soraia Molina digitaliziño enpresako kidiak. Prozesu osua liburutegixan bertan garatu dabe eta digitalizautako materixal guztia interneten, Euskal Liburutegi Digitalian jarri dabe ([www.liburu.klik.euskadi.net](http://www.liburu.klik.euskadi.net) helbidian). Euskadi maillan, bere fondua bertan ipintzen lehelengua izan da Eibarko liburutegixa. Proiektuak 3.500 euroko kostua izan

dau eta Eusko Jaurlaritzak diruz-lagunduta ordaindu dabe.

Euskal Liburutegi Digitalian eskuragarri ipiñittako biharren artian, bestiak beste eta zaharrenekin hasitta, XVI. mendian momenturen batian Toribio Etxebarriarena izandako Biblia (Biblia ad vetustissima exemplaria nunc recens castigata, Romae que revisa...) eta meza-liburu bat (Missale romanum, Ex decreto Sacrosancti Concilij Tridentini restitutum, Pii V. Pont. Max. iussu editum...), bixak be Gulielmum Rouillium-en eskutik Lyonon inprimidutakuak dagoz, XXI. mendera arteko beste obra ezagun askorekin batera. Digitalizaziñua egitteko arrazoien artian, barriz, "Eibarko liburutegiko fondorik inportantiena tokiko fondua dala kontuan hartuta,



teknologixa barrixak erabillitta hori zabaltzeko aukeria aprobetxatzia, konsultak egittian lanak hondatzeko arriskuak murriztia eta obra horren gaiñeko ikerketak erraztia" dagoz.

## Gure Balioak sarixa Elgoibarrera



**GEMMA AGIRREGOMEZKORTA ELGOIBARRAK JASO DAU AURTENGO GURE BALIOAK SARIXA**, atzo arratsaldian Ermuko Lobiano jauregixan ospatutako ekitaldixan. Sarixa jasotzeko presentautako 30 bat hautagaixen artian Agirregomezkortari sarixa emotia aho batez erabagi eban epaimahaixak, bertako kidien ber-

betan, "inziatiba, solidaridadia, zintotasuna, ahalegiña, konstantzia eta bestiekiko eta beste kultura batzuekiko errespetua" Gemmak ordezkaten dittuala pentsatzen dabelako. Aurtengo sarituari 12 urterekin distrofia muskularra diagnostikau zetsen eta harrezkero erroberadun aulkixan dago. Bestiak beste elbarrixak gizarteratzeko eta biharrian jarduteko aukerak emotiaren alde gogotik biharra egin dau eta 1985ian Elgoibarko Izpi lantegixaren sorreran lagundu

eban. 2001ian Miski GKEia sortu eban, Cuzcon (Peru) haurrak eta batez be neskatillak eskolaratzen laguntzeko asmuari jarraituta eta bere ekimenez bideratutako laguntasunari esker 600 bat ume eskolaratu dira. laz sarixa jaso eban M<sup>a</sup> Tere Gantxegik emon zetsan sarixa aurtengo irabazliari.


## Deparkel-en bideoklipa Gaztearen Lipdub Lehiaketan

**DEPARKEL DEBABARRENA PARKINSON ELKARTEAK GRABAUTAKO BIDEUA EUSKADI GAZTEAK** antolatutako 2. Lipdub Lehiaketan finale-rako sailkatu diran 20 lanetako bat da eta oin jendiaren botuak bihar dittue, sailkapenaren hurrengo fasera pasau eta jokuan daguaz 3.000 euroak eskuratzeko aukeria eukitzeko. Botua emoteko [www.eitb.com/eu/gaztea/](http://www.eitb.com/eu/gaztea/) lip-

dub helbidera sartu eta, "bozkatu" diñuan tokixan sakatuta, eskatzen dittuen datuak bete eta "bidali" gaiñian klikatu, besterik ez da egin bihar. Alkar-teko kidiak Macaco-ren "Moving" abestixa aukeratu dabe bideokliperako, horren erritmora, Ardantza kalia daken lokalian eta inguruan grabau dittue irudixak, Parkinson gaixuak bizi daben errealidadia islatu nahixan.







Untzagan zabaldu eben ferixakuak ondo igarri zetsen eguraldi kaskarrari. / LEIRE ITURBE

## Eurixak arazuak eragin zittuan


**ASTEBURUAN ETENBARIK BOTA EBAN EURIXAK GURE HERRIXAN BE HAINBAT KALTE** eragin zittuan, beste toki batzuetan pasautakuen aldi arazuak ariñak izan diran arren. Kasu guztietan Sos Deiak-ek koordinatu zittuan abisuak eta, kasuaren arabera, Mankomunidadeko edo Udal Brigadako bihargiñak edo suhiltzaillik jardun eben arazuak konpontzeko biharrian. Kalterik

haundiñak Txonta, Matsarixa eta Azittaiñen egon ziran, urak luperixak eragin zittualako. Beste mailla batian, aurreko asteko eguenian Untzagan zabaldu eben ferixakuak be igarri zetsen eguraldi eskasari, domeka gaberaiño zabalik egotia aurreikusita euki arren, Protekziño Zibilletik eguraldixak okerrera egitteko aukeria eguala zabalzian, badaezpada goizerako postuak jasotzia erabagi eben eta.

## Azaro bete-betia Untzagako Jubilau Etxian

**UNTZAGAKO JUBILAU ETXEKUAK AZARORAKO PROGRAMAZIÑO ZABALA PREPARAU DABE,** bestiak beste bere sorreraren 11. urteurreuna ospatzeko. Hillaren 19ra arte Ester Fernández de Maruri margolarixaren kuadro erakusketia egongo da martxan, ohiko ordutegixan: astelehenetik barixakura, 19.15etatik 21.00etara eta zapatu eta domeketan 12.00xetatik 14.00xetara eta 19.15etatik 21.00etara. Astelehenian, barriz, gaztaiñerre ospatzeko, 18.00ak aldera gaztaiñak banatuko dittue eta hillaren 18xan, 17.30xetatik aurrera desfilia egingo dabe jubilauek, Corral gizonzekuen moda eta El Corte Inglés-eko andrazkuen moda erakusteko. Pasarelia zein pasarela gaiñekuak apaintzeko Flores Blanca eta Lakett estetika eta makillaje zentruaren babesa jaso dabe.

Eta San Andres jaxen aurre-




Ester Fernández de Maruri margolarixa.

tik, hillaren 26rako, hildako bazkidien aldeko mezia ospatuko dabe San Andres elizan (12.30xetan). Bertan Untzaga korokuak hartuko dabe parte eta, mezia amaituta, ohorezko aureskua dantzatuko dabe. Jarraixan, jubilau etxian bertan piskolabisa eskinduko detse bazkidieri eta euren famelixa-keri eta horren ostian, 14.30xetan bazkidieri omenaldixa egitteko bazkarixa hasiko da Arrate hotelian eta bazkalostian dantzaldixa egongo da Jose Airasen eskutik.

## Kultur Kazetaritzaren Sarixa Ana Borderasendako

**OIN DALA HAMAR URTETIK HONA SER KATEKO "LA HORA EXTRA" SAIUA ZUZENTZEN DABEN** Ana Borderas Eibarko kazetarixak irabazi dau Madrilgo Kultura Ministerixuak emoten daben 20.000 euroko sarixa. Borderas Madrilgo Konplutense Unibersidadian Informaziño Zientzietan lizentziau zan eta Radio Vitorian hasi zan biharrian, erredakziñuan. 1985ian Onda Madrid-en ekin zetsan programa-buru biharriari eta, jarraixan, Ser Katera aldatu zan,



1992xan. Azken aldixan datorren urtian, 2012xan antenan hogei urte beteko dittuan "La hora extra" kultur saiua, mundu osoko albistien barri emoten daben gaurkotasunez betetako kultur informatibua zuzentzen dihardu.

## Beheko Toki-kuak XVI. urteurrena ospatzen

**KARMEN KALEKO BEHEKO TOKIA JUBILAU ETXEKUAK EGUNOTAN DIHARDUE** jubilau etxia zabaldu zala 16 urte bete dirala ospatzen eta, horretarako, hainbat ekitaldi berezi antolatuko dittue. Martitzenaz gozotik hainbat joko eta txapelketa jokatu dittue eta atzo Alvaro Oliver magoak saiua eskindu eban. Gaur arratsaldian,

17.30xetan pastekin lagundutako kafetesnia hartzeko aukeria eukiko dabe bertara juandakuek eta jarraixan Una Noche Sin Sabina taldiaren emanaldixa hasiko da. Eta bixar, 11.00etan Karmengo amaren elizan mezia ospatu ostian jubilau etxian egingo daben piskolabisarekin amaittuko dittue aurtengo ekitaldixak.



Eguaztien be hainbat entretenimendu izan eben esku artian. / EKHI BELAR

## Presupuestuen aurkezpena

**MARTIN GARITANO DIPUTATU NAGUSIXA, FORU ALDUNDIKO BESTE HAINBAT ORDEZKARIREKIN BATERA,** eskualderik eskualde dabil herritarren aurrian hurrengo urterako presupuestuak presentatzen eta Eibarren astelehenian, hillaren 14an egingo dabe aurkezpen publikua, Armerixa Eskolan 19.00etatik aurrera.

asteko

27.000


datua

euro aurreztuko ditte Udalak, jaixo barrixendako dominiak oparitari lagatziakin batera. 1998xan hasi ziran 4'5 gramoko pisuko 18 kilateko urrezko dominiak oparitzen, urtian batatzeko beste jaixotako 200 umieri eta gaur egunian domiña bakotzak 180 euro balixo dau.

## Arbolen iñausaldixa hasi da

### EGUNOTAN UDAL BRIGADAKO BIHARGIÑAK HERRIKO PARKE ETA LORATEGIXETAN


daguazen arbolak iñaussten dihardue, azken urtiotako martxari jarraituta. Udazkenegero egitten daben iñausaldixak arboleri negua pasatzeko mesede egitten detsela pentsatzen dabe eta, horregaittik, aurreko astian Urkizuko parkian egiri eben moduan, herriko beste tokietan be arbolen adarrak "billuzten" juango dira, udaberrihan hostuak atzera be indarrakin urten deixen.



## Dentisten sensibilizaziñuarekin bat

### AURREKO ASTEKO ALDIZKARIXAN AURRERATU GENDUAN MODUAN, GIPUZKUAKO DENTISTEN KOLEGIXUAREN

eskutik martxan dagan kanpaiñaren barruan herriko ikastetxietan bisittan izan da Hortxi urtxintxa, umieri hortzak garbitzia zelako inportantia dan gogoratzeko. Eguazten goizian Argatxan egon zan eta, gaiñera, ipuin kontalari saiua be eskindu zetsen 4 eta 5 urteko ikasleri. Eta agurtu aurretik, opari bana emon zetsen ekimenarekin pozarren ibilli ziran ume guztieri. Gaur, barriz, San-saburuko umiak jaso bihar eben Hortxiren bisitia.



## Jose M<sup>a</sup> Martínez "Coque"-ren lana hartuko dau Kezkak

ASTELEHENIAN, HILLAREN 14AN, 20.00ETAN HASITTA PORTALEAK HARTUKO DABEN EKITALDIXAN, Kezka dantza taldeko ordezkariak Jose María Martínez Castillo "Coque"-ren margolanetako bat jasoko dabe, The Basque Children, gerra zibillian Britainia Haundira ebakuautako umien alkatetako Carmen Kilnerrek egingo daben dohaintzan. 2007ko maiatzian, "gerrako umiak" Britainia Haundira bialdu zittuela 70. urteurrena betetzian, Southampton-en ekitaldi berezixa ospatu zan eta antolatutako programaziñuaren barruan Kezka dantza



Carmen Kilner The Basque Children alkatetako ordezkariak entregauko detse kuadrua Kezka dantza taldekeri.

taldiak emanaldixa eskindu eban. Ekitaldi berian, ehunka "gerrako umeren" artian "Koke" artistia be egon zan. 2012xan 75. urte beteko dira Habana barkuan 4.000 ume erbesteratu zittuela eta hori gogoratzeko atzera be ekitaldi berezixak antolatuko dittue The Basque Children alkatetkuak eta tartian Kezkako dantzariak juateko inbitaziñua jaso dabe. 2009xan hil zan artistaren testamendu-betearazliak diran Carmen Kilnerrek eta Nerea Mendikutek erabagi dabe margolanetako bat, "Balletomania en repose" (1953) Kezka taldiari oparitia.

## Txina protagonista liburutegixan

### AURTEN BE EUSKO JAURLARITZAK BIDERATZEN DABEN LIBURUTEGIAK TOPALEKU IZENEN KANPAIÑAREKIN

bat egin dau Juan San Martin Liburutegixak. Oinguan Txina izango da Munduko Paisaiak ekimenaren protagonista eta, bestiak beste, herrialde horri eskindutako erakusketa monografikua preparau dabe liburutegixan bertan, irakurketa gida eta guzti. Horrekin batera beste jarduera batzuk garatuko dira datozen egunotan, Txinako kulturua, ohiturak eta beste-lakuak herritar guztieri gerturatzeko asmoz. Hillaren 29ra bitartian Txinari buruzko interesgunia egongo da liburutegixan, liburu, DVD eta CDiekin. Gaur 17.30xetan, bestalde, umien liburutegixan Txinako ipuin eta



kondairak kontatzeko ipuin kontalari saiua eskinduko dabe. Eta bixar, 17.30xetatik aurrera Kaligrafixa eta Papiroflexia taillarrak egongo dira martxan umien liburutegixan; eta ordubete geruago, 18.30xetan, han bertan adopziñuaren gaiñeko kontuak ezagutzera emoteko hitzaldixa hasiko da. Ekimen guztien dinamizatzaillia ANICHI Gipuzkuako adopziño famelixen alkartia da.

## Debabarreneko Turismo jardunaldixak

'KULTURA ONDAREAREN BALIOA ETA BERE EGINKIZUNA GUNE TURISTIKOAREN gizarte- eta ekonomia-garapenean' tituluari jarraituta egingo dira datorren egunenian, hillaren 17xan, Debabarreneko VII. Turismo Jardunaldixak, Deban. 09.30xetan hasi eta egun osuan. Jose Maria de Juan Koan Consulting-eko zuzendarixa izango da moderatzaillia eta turismo munduko adituak, unibertsidadeko irakasliak, ekoizpen-kulturaleko arduradunak eta gure eskualdeko hainbat agintarik hartuko dabe parte jardunaldixe-

# SUTONDOKO KONTUAK

## teknologia berrien bitartez

Ahotsak-ek, Eibarko Udalaren laguntzarekin eta Schindler enpresaren babesarekin, ahotsak.com webguneko materiala Eibarko ikastetxeetan erabiltzeko proiektua jarri du abian. Eibarko bizitza eta historia gerturatuko zaie, horrela, herriko ikasleei.

**S**an Andres, Aldatze eta Juan Antonio Mogel ikastetxeetako ikasleek modu zuzenean izango dute Eibarko antzinako bizitza eta historiaren berri, izan ere, momentu horiek bizi izan dituzten protagonistek kontatuko dizkie istorio, pasarte eta gertakizunak. Nola? Ahotsak-ek urteetan zehar batu duen ahozko ondarearen bitartez.

Ahotsak-ek Eibarren jasotako testigantzak aukeratu eta sailkatu ditu, eta ikastetxeek ikasgelan erabiliko dituzte. Horrela, gelan egunero lantzen dituzten gaiak aukeratu eta horien inguruko informazioa eskainiko zaie. Honen helburua, *“ume eta gazte txoek euren aittitta-amamen bizipenak eta gertakizunak ezagutzea da”*, Ahotsak-en berbetan. Modu horretan hainbat arlo landuko dira: historia, euskara, ipuinak, ahoz-kotasuna, bizikidetzeta eta abar. *“Belaunaldien arteko transmisioa egiteko beste modu bat da; lehen etxe barruan, sutondoan, egiten zena, orain ikasgelan egitea, teknologia berriak lagun hartuta”*.

Ikasgeletan ikasiko denaren arabera testigantza egokienak aukeratu eta, ondoren, gaia jorratzerako orduan bideoak eskainiko zaizkie gelan haurrei. *“Adibidez, errotaren*



230 herritako 4.600 hitzunen grabazioak egin ditu Ahotsak-ek Euskal Herrian.

*gaia lantzen dutenean, Eibarko nagusienek antzinako erroten inguruko kontakizunak ematen dituzte: errotak non zeuden, nola eramaten zuten garia errotara, nola jasozten zuten irina, eta abar”*.

### Aurrekari arrakastatsuak

Irailean eman zitzaion hasiera proiektuari eta abendurako izango dituzte arduradunek lehenengo datuak. Euren asmoa, *“ondo bidean”*, datozen urteotan proiektuak aurrera jarraitzea da, ikastetxe gehiagotan eta maila gehiagotan.

Eibarren martxan jarri berri den proiektu honek aurrekariak izan ditu eskualdeko beste herri batzuetan, Eskoriatza eta Aretxabaletan kasu, eta *“oso-oso emaitza*

**“Belaunaldien arteko transmisioa egiteko beste modu bat da”**

*onak”* izan ditu orain arte. Proiektuaren arduradunen berbetan, *“ikasleen ustez oso material aberasgarria da eta ikasleek harretan handiz entzuten dituzte kontakizunak”*.

### 100 eibartarren testigantzak

Duela 10 urte jarri zuen martxan Badihargu Euskara Elkarteak Euskal Herriko Ahotsak proiektua. Bere helburua, *“herririk herri 80 urtetik gorako jendea bideoz elkarriketatuta, eta euskal ahozko ondarea eta hizkerak jasotzea”* da. Guztira 230 herritako 4.000 hitzunen grabazioak egin dituzte Euskal Herri osoan eta [www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com) webgunean aurki daiteke egindako lana. Horrela, erreferentzia da une horretan ahozko ondarearen bilaketa eta dibulgazioan, bai Euskal Herrian, baita kanpoan ere. Arduradunen berbetan, *“pozgarria da hain epe motzean lortutako emaitzak ikustea, eta hori guztia Eibarren sortu zela ikustea”*.

Ahotsak.com-en 100 eibartarren testigantzak daude jasota, 529 grabaziotan eta 417 bideo-pasarte ikus daitezke. Hala ere, proiektua etengabe hazten doa eta grabazio gehiago egiten jarraituko dute Badihargukoek.



Eibarko bizitza eta historiaren berri jasoko dute haurrek.

*Astlehenean hasi zen Berrikuntzaren Astea eta, horren arira, sortu berri den Udaleko 'Garapen ekonomikoa, enplegua eta berrikuntza' sailak hainbat ekintza antolatu ditu. Pilar Pujanak dihardu sailean lanean eta bertako nondik norakoak kontatu dizkigu.*

**PILAR PUJANA, 'Garapen ekonomikoa, enplegua eta berrikuntza':**

## **“Berrikuntza errealitatea izan da beti Eibarren”**

**- Berrikuntzaren Astea jarri zen martxan eguaztenean. Zertan datza?**

Hainbat jardunaldi antolatu ditugu berrikuntzarekin lotuta. Gaur egun, berrikuntza berba asko erabiltzen da, baina zaila da modu batean azaltzen esan nahi duena. Orduan, gure buruari galdetu genion: zer da berrikuntza? Ikusi genuen Eibarren beti egin den gauza dela berrikuntza. Leku batetik hasi ginen, enpresa batzuekin, eta gero, enpresa horiek transformatu egin dira egoeren arabera, industria moldatu egin da, komertzioa ere... Beraz, berrikuntza kontzeptu potente bat dela antzeman genuen, zientzia eta teknologiarekin lotuta dagoena, baina baita jarrerarekin ere. Ikusi genuen praktika teoria baino aurretik joan dela Eibarren eta hori izan da gure oinarria. Berrikuntzak gure egunerokotasunean duen garrantziaz arituko gara jardunaldietan. Berrikuntza errealitatea izan da beti Eibarren; beraz, iragana, oraina eta etorkizuna lotzen saiatu gara.

**- Nola?**

Momentu bakoitzerako ekintza bana antolatu ditugu. Armagintza Museoa ate-irekiak, bisita gidatuak eta eskopeta egiteko prozesuaren erakustaldia; Alfa-Artera eta Teknikerrera bisitak; eta etorkizunean hobetzeko World Cafe bat egingo dugu bertako industrialdeko hainbat enpresa eta industriarekin lotura duten ikastetxeekin.

**- Zertan datza zehazki World Café horrek?**

Gure asmoa enpresen beharrak eta ikas-

tetxeek eskaintzen dutena kontrastatzea da. Ea elkargune bat aurkitzen dugun. Orduan, mahai bitan banatuko dira, hainbat galdera planteatuko dizkiegu eta gero aldatu egingo dira lekuz, galderak osagarriak izango direlarik. Guzti horrekin, eta guk geuk ere hobetzeko zer egin ahal dugun aztertuta, berrikuntzaren kontzeptua herritarrengana hurbiltzea nahi izan dugu.

**- 'Garapen ekonomikoa, enplegua eta berrikuntza' saila berria da Udalean. Zein da bere funtzioa?**


Politikariekin hobe erantzun ahal izango diote galdera honi, baina planteamendua da lan gehiago egitea (egoera ezberdina delako eta, nahiz eta etorkizunean krisirik ez egon, gauzak bultzatu egin behar direlako). Industria, komertzioa... orokorrean ekonomia arloan zerikusia dutenak batzen dira sailean.

**- Berria bada ere, saila martxan dago da goeneko.**

Ekimen horretaz gain, egin ditugu beste hainbat gauza. Ekimenak Eibarrera ekartzeko gestio asko egin ditugu. Ez da erreza, baina hainbat lerro markatzen eta ekintzak garatzen dihardugu.

**- Zeintzuk dira lerro horiek?**

Lanbideko programak ekarri nahi ditugu, beste bide batzuk eskaini, sortzen diren ekimenen parte izan nahi dugu... gure asmoa, bestetik, lanarekin erlazioa duten informazioen bozgorailu izatea da. Une horretan ez dugu guk antolatutako gauza handirik egiten,



baina horiek etorri arte, lanaren gaineko informazioaren bozgorailu bezala gabiltza eta baita solaskide bezela ere.

**- Partikularrei soilik ala enpresei ere zuzentzen zarete?**

Printzipioz partikularrekin dihardugu lanean, baina enpresekin ere aritu behar gara. Hor gauza bat dago argi, Debegesa dagoela. Eurak aspalditik dihardute lanean eta elkarlanean aritu beharko gara. Orain, hasi besterik ez dugu egin.

**- Hezkuntzaren ardura ere daukazu Udalean. Zer gertatuko da Lantegi Eskolarekin?**

Lehen, INEMek zeukan bere eskumena eta, orain, Lanbidera pasa da. Zer gertatu den? Guk martxan geneuzkan proiektuak maiztzean amaitu ziren. Gure asmoa beste berri bat egitea zen, baina Lanbiden esan ziguten nahiago zutela ondo pentsatu zein izango zen euren jarrera (ez gai honetan bakarrik, guztietan). Ez dute ezetz esan. Gure ustez, behintzat, Lantegi Eskolako proiektua garrantzitsua da. Nolako izango den hemendik aurrera? Ez dakigu. Lehengo estruktura izango duen? Agian bai. Pentsatzen dut Lanbiderentzat ere beharrezkoa dela proiektu hau, baina ez digute momentuz ezer zehaztu.



Elkarrizketa osoa: [www.etakitto.com](http://www.etakitto.com)

## **AZKARATE TELLERIA'tar FERNANDO**

**1. urteurrena: 2010-XI-7**

**“Beti izango zara gure bihotzetan”**

**ETXEKOAK**






Osasun Ministeritzak aginduta, sendagilliek printzipio aktibua errezetatu bihar dabe hemendik aurrera, hau da, sendagaixa beran izen generikuaren arabera eta ez sendagaixen marken arabera. Gaiñera, botiketan prezio baxueneko sendagaixak emon biharko dittue.

## Zelan ikusten dozu sendagai generikuak emotia farmazietan?



**JAVIER RUBIO**  
40 urte  
bihargiña

Generikuak dakana markakua dakanan iguala bada, ez dot iñungo arazorik ikusten. Gaiñera, bizi dogun sasoa kontutan eukitta, halako neurrixak ondo ikusten dittut herritarrek dirua aurrezteko.




**DIONI CONTRERAS**  
88 urte  
etxeoandria

Sendagai generikua markakuan iguala bada, barruan dakana bardiña bada, ez jata inporta. Batak eta bestiak egitten daben efektua bardiña bada, trankil nago. Gaiñera, sendagai generikuak merkiaguak dira, orduan, hobeto.

**MILA MAKAZAGA**  
77 urte  
etxeoandria

Estuasun pixka bat emoten desta oin sendagai generikuak hartzia, ez diralako itxuran lehenguak moduan, baiña eragiña bardiña bada ez dago arazorik. Eragiñ antzerakua igarri dot generikuak hartzian. Holan, ondo ikusten dot dirua aurreztia, sendagaixen eragiña berdiña dan heiñian beti be.



**JUAN ARENAS**  
66 urte  
jubilaua

Ondo ikusten dot. Halanda be, oiñ errezetia ez deskue lehen moduan emoten, oiñ epe luzerako erosi bihar dittugulako sendagaixak eta pilula asko elkartzen jakuz momentu batian. Zaharrendako nahastia da, gaiñera kaxak be aldatu egin dittue, baiña neurrixa ondo ikusten dot.



**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilbarrizeta 20 - beheko, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Erusketak laber

Egaitzen (lugar poligonoan)

Artikulo: matu eta oiguru erosi zabituak

Koizok - Eskala - Urtararako ibilak

Eskala Hesi orain ospitalean hartzen zaizke

Nazio eta Nazioetako tralajeak

**Mugica Ehorzketa**

TELEFONUA (24 ORDU)  
**943 201 951**

Laster zabalik

**Bacodeky**  
arobotega

Ego-Gain, 2-4

TEEN-  
AJEA



Surfa egiteko taula behar eta, erosi beharrean, berak sortu zuen berea. Lanbide bihurtu du taulak sortzea. Aritz Tolak ia 300 surf-taula egin ditu orain arte. Bere lana ikusteko edota berarekin kontaktuan jartzeko [aritzsurfboards.blogspot.com](http://aritzsurfboards.blogspot.com) webgunera jo dezakezue.

ARITZ TOLA, shaper:

## “Egindako lehen taulak betaurrekoen erakustoki moduan amaitu zuen”

- **Nondik datorkizu surfa egiteko afizioa?**

Txikitatik, orduan taularik ez banuen ere. ‘Kortxo’ (bodyboard egiteko taula) neukan bakarrik. Zer egin ‘kortxo’ batekin?. Dendara joan eta 80.000 pezeta balio zuen taulak. Beraz, taulak egiten hasi nintzen.

- **Nolakoa izan zen sortu zenuen lehen taula hori?**

Kaka-zaharra (barreak). Barzelonako denda batean betaurrekoen erakustoki moduan amaitu zuen. Ez nuen uretan sartu ere egin. Beste bat egiten saiatu eta bigarren horrek irri bateko paretean amaitu zuen. Orduan, Holandatik taulei buruz ikasitako lagun bat etorri zen (aerodinamika, mareak...), gaia buruan sartu zidan eta, kosta ahala kosta, taulak egiten ikasteari eman nion.

- **Nolakoa da surf-aula bat egiteko prozesua?**

Taula erosi nahi duenak papertxo bat betetzen du taulak izango dituen ezaugarriekin. Normalean hona datozenak ez dira surfa ikasi nahi duten horietarikoak, baizik eta zehazki

zer nahi duten dakitenak, surfa egiten urteak daramatzatenak.

- **Zenbat balio du taula bat egiteak?**

Atetik sartzen den lagun bakoitza mundu bat da. Aurpegira begiratu eta bere umiltasuna ikusten duzu. Bera nolakoa den arabera eta bere tratua nolakoa den, gauza bat edo beste esango diozu.

- **Zenbat denboran egiten duzu taula bat?**

Astebetean. Lehenik, forma eman eta margotu egiten duzu. Gero, laminatu, ugaldtu, lixatu eta erretxina gehiago ipini. Ura-ekin lixatu ondoren, tapoiak eta gilak ipintzen zaizkio azkenik.

- **Nongo jendea dator taula bila? Eibarren badago zaletasunik?**

Gehienak hemen ingurukoak dira, baina hilabete honetan Tarragonara taula bi bidali ditut, adibidez. Eibarren, bestalde, zaletasun handia dago. Afizioa dago dirua dagoelako, kirol nahiko garestia baita, eskia edo snowboard-a bezala. Moda da, urtarrilean pertsona gutxi ikusiko baitituzu uretan.

**SM MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

**Egigurentarren, 18**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
104,0 FM

**Iradi**  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Liliana gurasoen etxera bueltatzen da denbora luze batez atzerrian egon ostean. Familiarekin erlazio ona izan arren, konpondu gabeko gatazken eta Lilik berezko duen blokeatzeko joerak gatazka sistematikoak bizi arazten dizkie. Hori kontatzen du 'Family Tour' filmak eta Jorge Llama eibartarra da horren ekoizle-burua.

## Ikus-entzunezkoetan 'tourra' egiten

**S**amurtasun eta fustrazioz beteriko komedia intimoa bezala definitzen du Jorge Llamak 'Family Tour' pelikula, "iraganeko bidaia katartikoa". Ekoizle-buru bezala dabil Virginia Etxarri tolosarrarekin Liliana Torres zuzendari kataluniarrek zuzentzen duen filma autobiografikoan.

Mexikon 8 urtez dokumentalak zuzentzen eta ekoizle bezala ibili izan da Torres eta, orain,artzelona bueltan, proiektu hau garatzen dihardu. Bitxieta da aktore profesional bakarrak egiten duela bertan lan, Nuria Gagok. Beste guztiak euren bizitza errealeko papera egiten dute: Lilianaren gurasoek, ahizpak, aitona-amonek, izebak, eta abar. "Artistikoki sentsazio oso onak ditugu lehen astea pasa

ondoren. Nuria Gago eta familiaren arteko konexioa oso ona da eta mugimendu interesgarria sortzen ari dela esan genezake", aipatzen du Llamak.

### 2012ko udarako amaituta

Filmaren ekoizle-buru bezala, grabaketa hasi baino 2-3 hilabete lehenago egin behar izan zuen lan gehiengoa Jorgek. "Grabaketa sasoiaren dena kontrolpean izan behar dugu". Orain, berriz, grabaketa sasoiaren, proiektuaren arduraduna da. "Sor daitezkeen arazo guztiak konpontzeko arduradunak gara: epeak, aurrekontuak, arauak bete eta betearazi...". 30 pertsonak hartzen dute parte grabaketan, eta Virginia Etxarri eta bera dira gainbegiraleak.

Urriaren azken astean hasi




Jorge Llama 'Family Tour' filmaren ekoizle-burua da.

zuten grabaketa Sant Bartolomeu del Grau herrian eta Vic-en jardungo dute lanean hurrengo lau asteetan. "Egunean 12 ordu eta astean 6 egunetan egiten dugu lan". Behin hau eginda, "postproduktzioa geratzen da: muntaia, soinu muntaia, kolorearen zuzenketa, eta abar".

### Erresuma Batuan bideo klip saritua


Publikoaren aurrean karrera amaierako proiektuarekin egin zuen agerpena Jorgek. Eibar Kirol Elkarteak 2007an 2. A mailara igotzea lortu zuenean dokumentala osatu zuen eibartarrak eta Coliseoan aurkezteko aukera izan zuen. Ondoren, ikus-entzunezkoen munduan egin duen bidea handia izan da bere gaztetasuna aintzat hartzen bada (26 urte).

2010ean 'Bucarest, la memoria perdida' dokumentalagatik Goya saria irabazi zuen Albert



Solé zuzendariaren hainbat dokumentaletan ekoizle bezala ibili izan da, pelikuletan lan egin du eta baita bideo klipetan ere. "Azkenengoa 'Oh Land' taldearen 'White Night' abestiaren bideo-klipa izan da, aste honetan UKMVA (UK Music Video Awards) urteko pop bideo onenaren saria jaso duena".

Bartzelona bizi da Llama, "han proiektu handi gehiago dago Euskal Herrian baino. Hala ere, Euskadin lan egitea gustoko dut eta urtero egiten dut zerbait". Urtean zehar gauza desberdinak egitea gustatzen zaizkio, "gehien gustatzen zaidana proiektuz aldatzea da". Horrelako bidea eginda, Bartzelona eta Eibar artean ez zaizkio proiekturik faltako.



## BRUNA LARREATEGUI IRAOLA

2011ko irailaren 24an hil zen,  
91 urterekin

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

## Elikadura osasuntsuaren alde

**N**oizean behin, pisua galtzeko beste dieta miresgarri baten berri izaten dugu. Bere izen edo mezua erakargarriak izanda ere, osasunerako kaltegarriak diren ala ez galdetu beharko genioke geure buruari. Moda alternatiba guztiek era berdintsuan funtzionatzen dute, organismoa engainatuz: bide metaboliko arruntetik kanpora irtenda, koipe biltegiak erretzeko bide azkarragoa hartzen dute. Eta, modu horretan, pisua azkar galtzen da.

Sekulakoa izango litzakete osasunerako ondorio larriak saihestu ahal izango baziren: gibel eta giltzurrunen gehiegizko zama, hezurren desmineralizazioa, minbizi mota batzuen oinarri, ondorio psikologiko larriak... Gainera, une batean, gorputza (trikimailuaz jabetzen denean) bide arruntera bueltatzen da: ondorioari yo-yo efektua deitzen zaio (azkar galtzen dena azkarrago errekuperatzen delako). Iruzur-sistema horiek hainbat ezaugarri izaten dituzte: emaitza azkarrak agintzea (hilean 2-4 kg galtzea gomendatzen da), janari multzoren bat debekatzea, elikagai batzuen onurak handitzea, janari onak eta txarrak zerrendatzea eta jakiei aparteko ezaugarriak ematea, besteak beste. Elikadura osasuntsuen aldeko gomendioei aurka eginez, ez dute luzarorako soluziorik ikusten.

Nutrizio arloaren ezagutzan oinarrituta, pisua galtzeko eta luzaroan eusteko "truko bakarra" bizitza osasuntsua egiteko erabakia hartzea da: denetik jan (hori bai, neurrian) eta horri ohiko edo eguneroko ariketa fisikoarekin laguntzea. Horrela bakarrik lortu dezakegu azken helburua: bizitza kalitatearen onuraz gozatzea, orain eta etorkizunerako.



*Silvia Zuluaga*

### ZERGATIK DA HOBEA AMAREN ESNEA




Gizakien esnea da ume batek har dezakeen onena, bere beharriak asetzeko diseinatua izan delako. Jaiotze-berriaren beharrik beste edozein produktuk baino hobea asetzen ditu, guztiz gainera, 'elikatu-lotura-estimulatu-inmunitate' arloak erabat betez. Bestalde, amaren-esnea elikagai osoa da eta umeak bere bizitzako lehen hilabeteetan behar dituen mantenua dauka eta, gainera, euren proportzioak ahalbidetzen du bata bestearen gainetik ez egotea. Behi-esnea kontsumitzen dutenak, bestetik, deshidratatzeko, kalcio kopuru baxua izateko, diarreak edukitzeko, anemia jasateko eta dermatitis amoniakala izateko aukera gehiago dituzte.



### BENETAN KALTEGARRIA AL DA KAFEINA



Kafearen osagai aktibo hau janari eta edari askotan dago, eta erdiko nerbio-sistemako droga estimulatzaile ezagunena da. Mundu osoko 60 landaretan aurki daiteke. Adituen berbetan euforia eta indar sententzia ematen du hainbat ordutan zehar burmuina estimulatzen. Ekintza intelektual eta sormenezkoa ere erretzen du. Gizartean, hala ere, badaude mito asko kafeinaren gainean, horietariko asko gezurrak direnak: kafeak digestioa egiten laguntzen du bazkalostean; neurrian hartuz gero, ez du eragin txarrik umeengan; haurdun dauden emakumeengan ez du kontrako eraginik sortzen, ezta emakortasunean ere; ez dago erlaziorik kafeina eta minbiziazko artean; kafeinak ez du adikziorik sortzen; eta tentsioa momentu labur batez igotzen badu ere, ez du bihotzkoa emateko aukerak gehitzen, ezta gaixotasun koronarioak ere.




### NOLA LASAITU DAITEKE HORTZEKO MINA



Hortzetako mina lasaitzeko ura, gatz, tomate-landarea eta azido azetilsalizikoa (aspirina) behar dituzu.

Ur taza batean gatz koilarakada bi egosi. Trapu bat busti infusioan eta bekokian kokatu aguantatu ahal duzun tenperatura handiengan (ez badu funtzionatzen, trapu beroak eta hotzak txandakatu). Tomate-



landareren bat eskura badaukazu, hainbat hosto egosi eta aho-irauzketak egin infusio horrekin (ahalik eta beroen). Farmaziarik zabalik balego, analgesiko likidoa erosi eta algodoi puska batekin hortzean eman odontologora joan ahal izan arte. Bestela, aspirina zatitxo bat hortzean kokatu eta algodoiarekin estali. Berehala sentituko duzu lasaitasuna.



Politikan parte hartzeko modu bat baiño gehiago dira hauteskundiak. Zuzenian edo zeharka, bati baiño gehiago tokatzen jako lan egittia hauteskunde egunian, boto-emoillien eskubidiak bermatu edo kontaketa biharrak eraginda, bestiak beste. Hillaren 20xan Espainiako hauteskunde orokorrak izango dira, aurtengo bigarrenak maiatzian egindako udaletarako eta Foru Aldundietarakuen ondoren. Urtian bigarren bidar hartuko jako temperatura politikaren termometruari eta, egun berezi hori aprobetxatuz, hauteskunde inguruko gauzeri errebasua emongo detsegu hamen, batez be egun horretan beste era bateko ardurak dittuezen herritarrekin.



Hauteskunde egunak ospatzekoak dirala diñue batzuk: oinguan raziño bikoitza izango dogu. / LEIRE ITURBE

## A-20: Urteko bigarren hauteskundiak

Udal Estadistika sekziñuak hamahiru lagun jartzen ditu hauteskunde bakoetan biharrian, bertan esaten des-kunez "sekretariarekin batera, bera dala-ko prozesu guztiaren azken arduraduna". Hauteskunde prozesuaren kalendarixua berauek publikatzen diran egunian hasten da, "plazuak be hortik aurrera hartzen diralako. Oinguan, esaterako, iraillaren 27xan publikau zan Errege Dekretua", diñoskue. Hautesle-zerrendak, bestalde, junixuaren

29rako zeguazen itxitta eta zensuaren aurreko erreklamaziñuak oktubrian egin ziran: "Astebeteko epia izaten da hor eta oinguan oktubreko 3tik 10era egin dira, resoluziñua 3-4 egunetan emoteko".

Ondoren dator mahaixetan egon biharko diranen zozketia, udal plenuan. "Zozketia publikua da, jendiak horri entzungor egiñ eta ez badau siñisten be. Gaur egun zensotik bidaltzen deskuen programa informatikuak erabagitzen dau; lehen, bolekin egi-

tten genduan eta luzetxuago jotzen eban. Egixa esan, iragarritta be iñor ez da etortzen zozketara". Gure herrixan lauhun lagunetik gora mobilizatzen ditu zozketa horrek: "44 mahai elektoral ditugunez, eta bakoetxian hiru titular eta sei ordezeko izendatzen dirala-eta, bakarrik hor 396 notifikaziño bialdu bihar ditugu. Horreri ezin dabezenak eragindakua gehittu bihar jako, horien ordekuakin zerrendia luzatzen doialako". Notifikaziñuak banatzeko lagun bi ar-

APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA



**EMAN CONSULTING, S.L.**

- **AHOLKULARITZA ETA CONSULTING**
  - Laborala
  - Fiskala
  - Kontablea
  - Juridikoa
- **GIZA ERREKURTSOAK**
  - Enpresako komenio eta hitzarmenak
- **PERTSONALAREN AUKERAKETA**
- **STAFF OROKORRA**
- **KRISIALDIAN DAUDEN ENPRESAK BERRIRO MARTXAN JARRI**
- **AUDITORIAK**
- **KOMENIO ESTRAJUDIZIALAK**
- **ORDAIN-ETENALDIAK**
- **ASEGURU PRIBATUAK**
- **KALITATE ARAUAK**

**J. Etxeberria, 5** (Tel. 943 200 336 / 943 200 069) - Faxa: 943 200 342 **EIBAR**  
**Marqués de Valdespina, 10** (Tel. 943 170 054) - Faxa: 943 176 901 **ERMUA**  
[emanjur@emansl.es](mailto:emanjur@emansl.es)

**MAILAK TRUST. S.L.**



TRANSAKZIO  
 INMOBILIARIOAK  
 KOMUNITATEEN  
 GESTIOA

- **ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA**
- **ALOKAIRUAK**
- **TRASPASOAK**
- **BALORAZIOAK**
- **PERITAJEAK**
- **SUBENTZIOAK**
- **KREDITU OFIZIALAK**
- **BANKU KREDITUAK**

**J. Etxeberria, 5 (EIBAR)**

Tel. 943 200 336 / 943 208 778 Faxa: 943 200 342

**Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA)**

Tel. 943 170 451 Faxa: 943 176 901

durutzen dira: "Lokalizatza ez da samurra izaten kasu batzuetan: telefonua be dantzaz jartzen dogu eta Udaltzainguk be laguntzen desku. Oin momentuan (hillaren 8xan) lau lagun falta jakuz notifikatzeko", diñoskue. Ikusten danez, "kartara" dihar due biharrian Estadistikan.

### Kolegixuak prestatzen

Mahaixak osatzeko, 18 urtetik hasi eta 70erañoko gizonezko eta emakumezkuak dake aukeria. Maiatzeko hauteskundietan igo eben adiñ hori 65etik 70era, "jubilaziñua be atzeratzeko asmuarekin batera, akaso". Idatzia eta irakortzia jakittia dira biharrezkuak eta mahaiko presidentiak, gaiñera, "graduadua izan bihar dau gitxienez". Notifikaziñua jaso eta astebetia dake jendiak alegaziñua egitteko, "gure kasuan Bergarako Epaitegiko Juntaren aurrian". Osasun arazuekin lotutako alegaziñuak egitten dabe gehixenetan aurrera (laktanziari be erreparatzen jake azken aldixan), "lan kontuetan-eta ez diralako onartzen, holako egun baterako permisua emon bihar detsuelako biharrian. Alegaziño nahiko aurkezten badira be, gitxik egitten dabe aurrera: halanda be, gu beti gagoz prest jendiari laguntzeko". Onartzen dan bako txarekin, mahai osua aldatzen da eta izan leike "lau egun aurretik deitzia be hauteskunde egunerako".

Estadistikakuen hurrengo biharra hauteskunde kolegixuak prestatziarena izaten da, hauteskunde egunaren bezperetan egitten dabena. "Aurreko egunetan kabinak eta materixala eruaten dabe Brigadakuak eta gu hartu-emonian jartzen gara ikastetxe bako txeko (kolegixo gehixenak ikastetxiak dira) zuzendarixarekin -kalefakziñua eta holakuak kontuan hartu deixan- eta baita, gure kasuan, Hospitalarekin eta Amañako parrokixarekin be". Zapatuan materixal guztia prest daguala ziurtatuko dabe eta kartelak egingo dittue, hurrengo eguneko señalizaziñorako.



### 62'61 euroko soldatia

Behiñ hauteskunde egunera helduta, "mahaixak osatzen eta dokumentaziñua kunplimentatzeko izan leikezen zalantzak argitzen" lagunduko detse udal Estadistikako lan-taldiak. Presidentia eta bokalekin mahaixa osatuta, hori komunikatzen da eta konbokatutako ordezkua libre dagoz. "Gaiñera, beti geratzen da bat udaletxian, deixa jaso eta edozeiñ arazori aurre egitteko". Egun osoko jarduna izango da, kolegixua itxi arte, eskrutinixua egiñ eta datuak emititzerañio. "Aurreko hauteskundietan azken datuak, ondo ezkontzen zirala ikusitta, %100ian, komunikatu genduan Diputa-

### HAUTESKUNDE KOLEGIXOTAKO MAHAI ZERRENDIA

Udaletxian: 8 mahai  
Arrateko Andra Marin: 4 mahai  
Gerontologikuan: 2 mahai  
Amañako torrietan: 2 mahai  
Amañako parrokixan: 2 mahai  
Coliseoan: 3 mahai  
EPA Zentruan: 7 mahai  
San Andres (jantokixan): 4 mahai  
San Andres (aretuan): 4 mahai  
Urkizun: 8 mahai

ziñora; oinguan Korreosekuen arduria izango da". Mahaiko presidentiak, bere aldetik, dokumentaziñua eruango dau Epaitegira eta han jaso daben agirixa emongo detse.

62'61 euro jasotzen dau hauteskunde egunian mahaixan egotia tokatzen jakonak eta hurrengo egunerako ordaindutako bost orduko permisua dake. Aurretik eskuliburu bat emoten jake, bere burua hobeto kokatzeko egun horren aurrian; Estadistikako bihariñak diñoskunez, "mesedegarrixa da oso liburua irakortzia, zalantza asko argitzen dittu-eta". Mahaiburu eta bokalekin batera, alderdi politikuen eskura daguizen interbentoriak be izaten dira hautes-mahai-xetan, apoderauekin batera.

### Korreosen be lan gehixago

Korreos da hauteskunde sasoi gehixen nabaritzen daben erakundietako bat. Jon Cano Eibarko delegaziñoko arduradunak bi arlo desbardintzen dittu: "Korreoz botua emotiarena da bata eta propaganda banatziarena bestia". Oingo elekziñuetan botua emoteko eskaeria irailaren 26tik egin leikian arren, "jendiari epiak apuratzia gustatzen jake". Eskaeria egitteko atzokua (azaruaren 10a) zan azken eguna eta 17xa izango da botua bialtzekua. Halanda be, jendia pixka bat nahastuta ibiltzen dala diñio Canok: "Hona etortzen dira askotan zuzenian botua emotera, pentsatzen egun bakar batian dana egitteko aukeria izango dabela. Fisikoki, noiz emon bihar dot botua?". Baiña, ez, eskatu egin bihar dau lehelengo eta gero sobria jaso interesatuak zuzenian. Bittan abisatzen jake Korreosetik pasatzeko eta abisua laga. "Oinguan aurrekuan baiño eskaeria gitxiago jaso dogu botua korreoz emoteko. Ez dakitt horrek zeozer emoten daben aditzera", diño Canok.


Bestela be, ohiko lanari hauteskundiak berak eragindakua gehitzen jake Korreoseri. "Eibarren 8 lagun dagoz biharrian buleguetan eta beste 19 karterian, korreua-eta banatzen. Horiei Ermuan karterixan dagua-

5 eguneko Teorikako IKASTARO TRINKOAK

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac  
Tel. 943 20 34 45

ZEZEN BIDE



AUTO ESKOLA

zen bederatzi lagunak gehitu bihar jakuez. Eta, hamar lanegunetan bost zenso oso banatu bihar dittugu kasu honetan. Propagandia lehenagotik eukitta be, kanpaina hasi aurretik ezin dogulako banatu". Kamioiak be egunero eta gero eta zama gehixagorekin: "Sasoi honetan kondukziño bi dittugu egunian: normala bata eta extra bestia. INEk bialtzen deskun txartelak be banatu biharra dakagu". Lan guzti horrek hauteskundietan plantilla osuak izatia es-

katzen dau, postu guztiak bete bihar diralako: "Horretara bihartuta gagoz, Zerbitzu Publiko Ofiziala garalako. Enpresa moduan begiratura, lan gehixago badakagu be, irabazietan be zeozer gora egitten dogu hola-kuetan. Ez gara negarren hasiko".

**Hauteskunde eguneko taldia**


Badago "hamar bat laguneko" lan-taldia, "gehixenak Korreosen biharrian dihardugunok" hauteskunde-egunetan biharra egitten

dabena "Administraziñuaren ordezkari paperian". Angelek urte mordia darama talde horretan: "Mahaixetan izaten gara eta datuen aurrerapena egitten dogu egunian zihar. Azken orduan, bestalde, datuak kuadratzen dabena begiratu ostian, jakittera emoten dittugu". Badake beste funziño garrantzitsua be: "Guk ordaintzen detsegu soldatak mahaikidieri". Akatsik ez egotiaz arduratzen dira eta edozein ezusteko gertatu dala transmititzeko arduria dake, batez be.

**Badira eibartarrak Espaiñiako Kortietarako Hauteskunde Orokor hauetan**



**GIPUZKOAKO HAUTAGAIXEN ARTIAN, badira hainbat eibartar edo gure herriarekin lotura dakenak behintzat:** holan, Kongresurako, PSE-EEen Eneko Andueza 6. postuan doia eta Ana Mª Rodríguez Fouz bigarren ordezkua da; Amaiurren Begoña Vesga 5.a da eta Sergio San Jose 2. ordezkua; Ezker Anitzan Isabel Salud 3. postuan doia eta Eli Gómez Laconcha 5.ian; eta EQUOn Iñigo Agirre doia laugarrena. Senatuari dagokixonez, bestalde, PSOEn Jose Luis Vallés gaur egun senatarixa dana 1. postuan aurkezten da, Amaiurren Alberto Unamunzaga doia 2. postuan eta EAJ-PNVn Iñaki Zuloaga hirugarrena da.



**Bestalde, Euskadi ordezkutzen 18 diputatu eta 12 senatari aukeratuko dittue.** Senatarixen kasuan, launa dagokixe hiru probintzietan; baiña ez da horrela diputatuari dagokixonez, hor biztanlien arabera banatzen dira-eta. Holan, Bizkaiak zortzi izango ditu, Gipuzkuak sei eta Arabak 4 (Nafarruak 5 izango ditu). CIS-ek (Centro de Investigaciones Sociológicas) diñuanek Euskadikuak holan banatu leikez: Gipuzkuan (PSEk eta Amaiurrek biña eta PPK eta EAJ-k bana), Bizkaian (PSEk hiru, PPK eta EAJ-k biña eta Amaiurrek bat) eta Araban (PSEk eta PPK biña). Zenbatian asmatuko dau? Egiñ apustua!



**Irribarreak**  
gaztetu egiten gaitu



**Inplante eta Hartz-Estetikan adituak**

Bista Eder Hartz Klinika

Bista Eder, 19 - behea

943 70 00 82 / 943 20 84 75

"Ezin ditzakegu gauzak aldatu beti berdina egiten badugu"

**www. EstilGrafico.COM**

1880411 - maurre - egokitu - berrabiarazte - gaitu

- SCHMENA
- LAN-TALDEA
- WEB-GUNEAK
- ENPRESAKO BIDEKOAK
- KATALOGOAK
- IRAGARKIAK
- IBILI-KORPORATIBOA
- ERINTZULAZIOA
- ARGAZKIAK
- PACKAGING-A

## ...eta kitto!-kuen lan eguna

**1993**ko ekaiñaren 6xan hasi zan gure rebestia hauteskunde-alia egitten, oinguan moduan Espiñaiko Hauteskunde Orokorrietan. Orduetik hona, Udal Hauteskundiak eta Batzar Nagusixetarakuak, Eusko Legebiltzarrerakuak, Europar Parlamenturakuak, ixa urtero hauteskunde guztiak kurbidu dittugu, kalerik egin gabe, "euskeraz ez dakixenen artian be" azeptaziño haundia dakan astelehen goiz-goizeko aliarekin.

Holakuetan, eta oinguan bardin, "hamabost bat egun lehenago hasten dogu hauteskunde-eguna planifikatzen", diñoskue Koldo Mitxelena eta Marisol Uriarte lan-koordinatzailliak. Lan-taldia nahiko finkatuta dago aspaldittik (13 lagun oinguan, batzuren kasuan aurretik rebistatik pasatutakuak eta egun hori gordetzen dabenak barriro alkar ikusteko). Alderdixetako ordezkariexekin hitzordua lotuta -bai goizian botua emoterakuan eta baita gabaz azken orduko eritzixa emoteko be-, kazetari eta argazkilari biña mobilizatzen dira goizian. Aldi berian, "goizetik webgunian, Twitter-ian eta Facebook-ian egingo jako jarraipena egunari eta herri-xan daguan giruari".

Arratsaldian, argazkixak etara eta giruaren jarraipena egiñ ondoren, 19.00etan batzen da lan-taldia eta "bederatzi kolegixo ofizialetara ordezkari bana juango da, botu-



kontaketa amaittu arte". Kolegixoz-kolegixo eta mahairik-mahai botuak jaso ondoren (hori bai, presidentiaren eta udal funtzionari-xuen laguntasunaz), ...eta kitto!-ra bueltatuko dira. Datuak plantillan sartu eta Barne Ministerixoko datu ofizialekin kotejau ondoren, ale berezixan formia emoten juango jako. Lau kazetarik gabeko baloraziñuak jasoko dittue alderdi guztietako ordezkari-xen ahotik, "askotan guk geuk emoten detsegun datuekin". Beste kazetari batek testu orokorra prestatzen daben bittartian, soziologuak interpretaziñua egitten dau eta irakorketa egitten saiatzen da, "beti be presaketa eta azken datueri adi". Goizeko

02.30xak inguruan Gertu inprimategixan izango da alia, bestelakorik ez bada gertatzen: "Oin dala urte batzuk, korreo elektronikua kopauta zeguan eta autuan juan bihar izan giñan bertara", diñosku Koldok.

### Astelehen goizian produktu freskua

Eta goizeko 07.30xetan Oñatin jaso eta Eibarren hasiko da banatzen alia. "Guztira, 63 puntutan lagatzen dittugu: denda, komertzio, kiosko, Portalea, Pegora... eta kalian be, hainbat puntutan jartzen dira". Puntu-banaketia azken astian egitten da, jendiari telefonoz deittuta eta jendiak "oso ondo erantzuten dau". Itzuli bi egitten dira, "aliak agortu badira be". Herri-komunikabi-diak eta politikuak be jasotzen dabe astelehen goizeko alia eta "jendia gurera be etortzen da".

Aittatutako lan guzti hori nahiko "sistemizatuta" dago: "Politikuak honezkerok bada-kixe zelan egitten dogun biharra, funtzionari-xuen laguntasunak be prozesua asko azkartzen desku... Sasoi batian kolegixuetara ez giñan juaten, Udalaren menpe egoten giñan; oiñ askoz samurragua da dana".

...eta kitto! da Debabarrenan astekari bakar-ra hauteskunde guztietako datuak kale-ratzen eta, "jendiarentzako esperientzia aberasgarrixa izatiaz gaiñ, onarpen zabala jaso dau herrixan".

**denolan, s.l.**  
ENPRESA AHOLKULARITZA

Tf. (4 linea): 943 20 16 80  
Fax: 943 20 18 41  
denolan@denolan.es  
Muzategi, 1 (EIBAR)

Tf: 943 741800 / Fax: 943 741760  
P. M. Urruzuno, 31 (ELGOIBAR)

**Siurlan**  
ASEGURU ARTEKARITZA

Muzategi, 1 (EIBAR)

Tfnoa: 943 20 16 80 Faxa: 943 20 18 41

**Larragest** HELBIDE BERRIA

INMOBILIARIA AGENTZIA


F. Calbetón, 22-24  
Tf. 943 200 012  
Mob. 690 610 715



## Asola-Berrikoek puntu bakarrera dute lidergoa

### AURREKO ZAPATUAN EL-GOIBARKO SAN PEDRO-KO BOLATOKIAN JOKATUTAKO HIRU-TXIRLOKO

Euskadiko XXII. txapelketa-ko lehenengo jardunaldian, Iruzubietako Antolin Arizmendiarrrieta izan zen onena, bost txirlo botata. Hala ere, Asola-Berriko ordezkari-tza zabala sailkatu zen bere atzetik, txirlo bakarrera, eta hor daude, adi, lidergoari noiz helduko zain. Sergio Rodríguez, Bittor Astigarraga eta Ibai eta Miren Díez dira lau txirlo bota zituzten eibartarrak eta kopuru bera bota zituzten eta Iruzubietako Juan Txurrukak ere. Bihar jokatu da hurrengor jardunaldia, Bolibarko Iruzubietako bolatokia, hau da, gaur egungo liderraren etxean, 17.00etatik aurrera.



Arkaitz Rodríguez Gipuzkoako gaur egungo txapelkunak hiru txirlo bota zituen San Pedron.

## Pousoren Mirandés ahalguztiduna Ipuruan domekan

### PARTIDURIK GALDU GABE, HIRU GOL BAKARRIK JASOTA, KOPAN AURRERA

Villareali ezustekoa emateko prest... Sasoi ezinhobean jarraitzen du Carlos Pouso Eibar-ko entrenatzailea izandakoaren Burgos aldeko taldeak. Iaz ere ondo erakutsi zuen zelako talde indartsua zen eta 2. A mailara igotzea ere esku-eskura izan zuen, azken minutuetan Carlos Terrazasen Gualajarak ohostu bazion ere tokia. Aurten indartsuago oraindik, Eibarrekiko hamar puntuko aldearekin etorriko da Mirandés Ipurua; hala ere, Mandiola Eibar KE-ko entrenatzaileak ez du uste lan erraza izango dutenik Pouso-

ren mutilek eta talde gorri-urdi-na ikusten du faborito. Partida domekan jokatu da, ohikoa denez, 17.00etan hasita.



Ibilbide arrakastatsua darama egiten Carlos Pouso Mirandés taldean.



RAMON BETIA

## Punturik galdu gabe dihardu Koskorrek foball zaletuan

### ZAZPI JARDUNALDI: ZAZPI PARTIDU IRABAZITA. ZENBAKI HORIEK ERAKUSTEN DITU

Koskor lider sendoak ligako lehen laurdena gaintituta. Hala ere, azken asteburuan ez zuen hain erraza izan nagusitzea eta Carlosek sartutako gol bakarrak erabaki zuen Durangoren aurka jokatu norko norgehiagoka. EzDok (7-1 Txokori) eta Teknografik (6-0 Caseríori) izan dira aste hone-

tako talde goleatzaile nagusienak. Zortigarren jardunaldiak, bestalde, honako partiduak izango ditu: bihar, 09.00etan, Caserío-Tankemans eta Ekoden-Teknografik; 10.30etan, Azkena Kalton-Murillo Nazario; eta 12.00etan, Alkideba-Living Café. Etzi, bestalde, Koskor-Esmorga eta Txoko-Durango (09.00etan) eta Areto-EzDok (10.30etan) jokatu dira.

ekintzaileriasuna

De-babarrena 9014

www.gureballoak.com

Gureballoak

## Domina Espainiako Kopako judo txapelketan

**HONDARRIBIKO JOSTALDI FRONTIOAN JOKATUTAKO KADETE MAILAKO ESPAINIAKO KOPAN**, Kalamua judo klubeko Nekane Muguruzak 3. postua eskuratu zuen, hau da, brontzeko domina. Berarekin izan ziren Julen Ramón (9. postuan sailkatu zen) eta Manu Agirre, azken hau lehiaketako arbitraje zuzendari lanetan. Estatuko 17 autonomietako ordezkariekin batera, Italia, Frantzia eta Portugalgo judokak izan ziren, guztira 270 kirolari inguru.

Bihar benjamin mailako eskola-jokoa izango dira Kalamuako instalazioetan eta, bestalde, klubeko talde bat Durangora joango da teknika ikastaro batean parte hartzeko. Kurtso hori Bizkaian bizi diren Uematsu anai japoniarrek emango dute: euretako batek azken Olinpiadetan hartu zuen parte. Azkenik, Manu Agirrek Euskal Federazioak antolatutako epai titulua lortzeko ikastaroa emango du Amurrioko Buñeta kiroldegian.



Hondarribian izan ziren Kalamuako hiru ordezkariak: Manu Agirrekin, Julen Ramón eta Nekane Muguruzak.

## Asier Cuevas, Gipuzkoako atletarik onena

**URTEROKO OHITURARI JARRAITUZ, GIPUZKOAKO ATLETISMO FEDERAZIOAK GALAKO AFARIA** egin zuen Donostiako Amara Hotelean eta, ekitaldi berean, urtean gehien nabarmendu diren atletak saritu zituen. Horrela, Asier Cuevas Eibarko ultrafondistak jaso zuen sari nagusia gizonezkoen artean eta Teresa Errandonea hesilasterketariak emakumezkoetan. Sariak jaso zituzten Maite Stern epaileak eta Santi Pérez prestatzaileak ere, Jose Ramon Latorre abiadura-lasterkariaren eta Eva Maria Esnaola fondistaren lana errekonozitzeaz gain.



## Herriko gimnastak bihar eta etziko Euskalgym galan

**OHIKOA DENEZ, BIHAR DURANGON EGINGO DEN LEHIAKETAK** eta domekan Bilbon izango den erakustaldiak osatuko dute Euskalgym-a gala. Ekitaldi bietan izango dira Ipuruia gimnasia erritmikoko taldearen ordezkariak: lehenengo mailakoarekin batera, junior taldeak ere parte hartuko baitu. Gala horretan inguruko klub indartsuenak izaten dira, estatuko eta mundu osotik etorritako maila handiko gimnastekin batera. Aurten Montpellierren jokaturako Munduko Txapelketan dominak eskuraturako batzuren bisita izango dugu, Almudena Cid gasteiztarrekin batera.



# ARTOLA

*jatetxea*

### ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

*Lomo iberikoaren carpaccio-a  
Etxeko foie-a  
Txapiroien nahaskia*

*Legatza labean edo  
Bakailaoa pikillo saltsarekin*

*Solomilloa plantxan edo  
Orein erregosia*

*Degustazio postrea edo  
Limoi sorbetea cavarekin edo  
Turroi bigunaren mousse-a*

*Etxeko Errioxako kiantza ardoa,  
sagardoa edo beste*

Astelehenetik  
barixakura  
EGUNEKO  
MENUA  
**15 €**

Tokia gordetzeko:  
**943206348**

**25 €** + BEZ

# 33.151

...eta kitto!-ko  
**GABONETAKO LOTERIA**

Loteria  
hartzaileen  
artean,  
abenduaren 14an  
**GABON-OTARRA**  
zozketatuko da

#### SALGAI DUZU:

Udal Euskaltegia

AEK Euskaltegia

Isasi okindegia

Zabaleta okindegia

Untzaga prentsa

Urkizu prentsa

Kultu taberna

Mujika harategia

Valenciaga jantxidenda

Izadi loradenda

Zubi-Gain kafetegia

San Andres gozotegia

Dibutec fotokopiadenda

Bolintxo okindegia

Bankoa

...eta kitto!

## Hierros Anetxek lidergoari eutsi zion euripean Baztani irabazita

**AURRELARIEN ARTEKO JOKO BIKAINA BADU ERE, BAZTANEK AMORE EMAN BEHAR IZAN ZUEN** Unben Eibar

Hierros Anetxeren aurkako partiduan, azkenean 28-10 galduz. Eibartarrek modu horretan lidergoan jarraitzen dute bonus

gehigarri puntua ere lortu baitzuten, lau entsegu gauzatu. Dena dela, Zarautz ez dabil makalago eta hilaren 26an, lehenengo itzulia amaitzeko, Astin jokatu duten partidua erabakigarria izango dela dirudi aurretik bietako batek kalerik ez badu egiten behintzat. Aurretik, baina, Isasaren mutilek Gernikan jokatu dute hurrengo jardunaldia.



Infantil mailako jokalariek.

### Harrobia ere sendo

Rugbi taldeko kadete mailakoek maila ona erakutsi zuten Urribeldearen aurka eta Jokin Garcíarenak 50-5 irabazi zuten zapatuan. Domekan, bestalde, infantil eta alebin mailakoek hitzordua izan zen. 9 eta 14 urte bitarte badituzu, aukera duzu Unben proba egiteko eguazten eta barixakuetan (17.30etatik 19.00etara).

## Asteburu bikaina waterpolo eskolakoentzat

**FORTUNA-HERNANI KONBINATUARI 7-29 IRABAZI ZION** Urbat-Urkotronikeko kadete mailako taldeak Euskal Herriko ligako lehen jardunaldian. Infantil mailako taldea, bestalde, nagusitu egin zen Bilboko Maristasen igerilekuan jokatu lagu-

nartekoan, jokatu lau partidua irabaziz. Eta seniorrek, bestalde, bihar debutatu dute Euskal Herriko ligan, Easoren aurka 19.30etan jokatuz. Waterpolo eskolan atek zabalik daude oraindik (informazio gehiago Orbea kiroldegian).

## Eibar Eskubaloiak hiru partidu izango ditu Ipuruan asteburuan

**JUBENIL MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO PARTIDUAN**, Tekniker Eibar eskubaloiak Urrietako hartuko du bihar 18.30etan; eta infantil mailako B taldeak Elgoibarko Hotel Txariduna goizeko 11.30etan. Domekan, bestalde,

infantil mailako A taldeak hitzordua du 10.00etan Bankoa Elgoibarrekin. Orain arte aurkari guztiak egurtu dituen talde nagusiak kanpoan jokatuko du bihar, Legazpin Talleres Ondoren aurka, 19.00etan hasiko den partiduan.

## Domekan jokatuko da Behobia-Donostia

**ETZI, GOIZEKO 11.00-ETATIK AURRERA JOKATUKO DA BEHOBIA-DONOSTIAREN 47. EDIZIOA.** 23.000 atletak hartuko dute parte (urteko urtera parte-hartzaileen kopuruak gora egiten du) 20 kilometroko maratoni-erdian eta aurten Espainiako Federazioak egutegitik kanpo izango da lasterketa (Federazioak kobratzea nahi zuelako). Bi ordu eta 40 minutu baino arinago heldu beharko da metara. Asier Cuevasek parte hartuko du, 10 dortsalarekin.



**Mara**  
Mara

**MENDI KIROLAK**

ARRAGUETA  
KALEA, 10  
EIBAR  
943-702063

**HOSTOAK IKUSKIZUNERAKO SARREREN ZOZKETA**

Azaroan 25ean, 22.15etan, Ermua Antzokian izango den jaialdirako **BI LAGUNENTZAKO BINA SARRERA** zozketatuko ditugu. Parte hartzeko

beheko datuak bete eta **hilaren 18rako** bidali ...eta kitto! Euskara Elkartera (Urkizu, 11) edo, bestela, bidali mezua [publizitatea@etakitto.com](mailto:publizitatea@etakitto.com) helbidera zure izen-abizenak eta kontakturako datuak emanez.

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

Andrea Toschik organo kontzertua eskainiko du bihar 20.00etan San Andres elizan. Maisu italiarrak Marco Enrico Bossi, Luigi Botazzo eta Filippo Capocciren lanak interpretatuko ditu, besteak beste. Boloniarrek hainbat eta hainbat ekitaldi eskaini ditu Europa eta Hegoamerikan zehar, eta hiru CD kaleratu ditu.



**ANDREA TOSCHI, organista:**

## “Musika melodikoa eskainiko dut, italiar estiloan”

**- Noiz hasi zinen organoa jotzen? Eta zergatik?**

Gogoratzen dut 14 urte nituela. Orduan, etxera piano bat ekarri zuten eta, bapatean, liluratuta geratu nintzen musika-tresna horrekin. Hor hasi zen guztia, hor hasi zen nire bidea musika munduan.

**- Bakarrik aritu izan zara, baina baita besteekin batera ere eta hainbat musikarirekin kolaborazioak egin dituzu. Zer duzu nahiago: bakarrik aritzea, edo bibolin, txirula, tronpeta edo celloarekin bikotea eginez?**

Hainbat faktoreren arabera, bata edo bestea aukeratuko nuke. Nik garatzen dudana ganbera musika zaintzen saiatzen naiz hori sustatu behar dudalako, eta askotan nirekin aritzen diren kideek ezin dute horrelako lanik egin ez daudelako ohitura elizako habitatera. Organoen gainean arituz gero, bikotean lan egiteko organo erromantikoa behar nuke.

**- Nolako da egiten duzun musika?**

Eibarren, adibidez, opera musikarekin irekiko dut ikuskizuna eta erromantizismora iritsiko da eskainiko dudana musika ondoren. Berba batean esateko, musika melodikoa eskainiko dut italiar estiloan.

**- Egon zara aurretik Euskal Herrian kontzerturen bat eskaintzen?**

Ez. Espainian bai izan naitzela, baina Euskal Herrian ez. Hau izango da nire lehen aldian bertan.

**- Filippo Capocci, Luigi Botazzo eta Vincenzo Petraliren abestiak interpretatuko dituzu, besteak beste, Eibarreko kontzertuan. Nolako izango da ikuskizuna?**

Lehen aipatu bezala, hasieran opera-musika (Bergamoko Padre Davide) entzun ahal izango dute bertara hurbiltzen direnek. Horren ostean, datoren modaren ikuspegia izango dugu Petraliren lanarekin; eta, azkenik, erromantizismora abiatuko gara Capocci (Erromako eskola), Bottazzo (mezatako lan txikiak direnak) eta Bossiren lanak entzunez.



## Gaztañerre AEK-rekin ospatzen

**ASTELEHENEAN OSPATUKO DUGU GUREAN GAZTAÑERRE ETA AEK EUSKALTEGIKOEK**, azken urteotan egindako moduan, oraingoan ere trikitilariak lagundutako kalejirarekin eta, jarraian, afari-merienda eginda ospatuko dute jaia, “gure ohitura zaharrei eutsi eta euskara zabaltzeko asmoz”. Euskaltegi parean, Paloma tabernan 19.00etan batuko dira kalejiran parte hartu nahi dutenek eta hiru tabernatan gelditzeko asmoa dute, “mokadutxo egin eta euskal kantak eta koplak” abesteko. Herritar guztiak animatu nahi dituzte “Ondra janak tabernaz taberna” deitu duten ekitaldian parte hartu dezaten.



## Magosto Jaia Galiziako Etxekoekin

**AS BURGAS GALIZIAKO ETXEAK, URTERO SASOI HONETAN EGIN OHI DUENARI JARRAITUTA**, zapatu arratsaldean (18.00ak aldera) eta domeka goizean (12.00etan) Magosto jaia ospatuko du Urkizuko parkean: egun bietan gaztaina erreak, txorizo pintxoak eta Ribeiro ardoa salgai ipiniko dituzte eta horien salmentan batutako dirua Os Galaicos Eibarko Galiziako Etxeko gaita taldearentzat, urtean egiten dituen jarduerak ordaintzen laguntzeko izango da. Bestalde, domekan 12.00etatik 13.00era Urkizura gerturatzaren diren umei gaztainak doan banatuko dizkiete.



## Extremadurako folklore jaialdia

**EXTREMADURAKO BEDERATZI ABESBATZ ETA DANTZA TALDEK JARDUNGO DUTE ZAPATUAN** Coliseoan, 17.30etan hasiko den Extremadurako XVIII. Folklore Jaialdian. Eskualdeko extremadurako taldeen eskutik antolatutako jaialdiak Sol de Extremadura (Errioxa), Alma Extremeña (Galdakao), Flor de Tomillo (Ermua), Aromas del Pueblo (Bilbo), Alcandora (Santurtzi), Virgen de Guadalupe (Gasteiz), Ecos de Extremadura (Errenteria), Virgen de Guadalupe (Donostia) eta La Encina (Astradua) batuko ditu taula gainean.



## Kultun azaro gastronomikoa

**ARRATE KULTUR EKARTEAK URRIAREN 29-AN LEITZAKO PERU-HARRIRA ETA ANDOAINGO URAREN MUSEORA** antolatutako irteeran argazkian ikusten dituzuen 38 lagunek hartu zuten parte eta, euren berbetan, "giroa ezin apartagoa izan zen, errepikatze modukoa. Berezik aipatzeak dira Iñaki Perurenaren azalpena, tokia bera eta burutzen diharduen museoa".

Bestalde, Azaro Gastronomiakoaren barruan hainbat jarduera antolatu dituzte. Hasteko, hilaren 19an (zapatua) ogia prozesu naturalari jarraituta (legamia barrik) egiten ikasteko tailerra emango dute Juantxo Aranburu eta Teba Gonzálezek, 09.30etan hasi eta 13.30ak bitartean. Azalpenak euskeraz emango dituzte eta gehenez 8-10 lagun onartu-

Argazkian Leitzako Peru-Harrira egindako txangoan parte hartu zutenak.



ko dira. Ikastaroaren prezioa 30 eurokoa izango da bazkideentzat eta 32 eurokoa bazkide ez direnentzat. Izena emateko Arrate Kultur Elkartearen bulegora joan daiteke, martitzen eta eguenetan, 17.00etatik 20.00etara edo, nahiago izanez gero, 943-202299 telefono zenbakira deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idazteko aukera ere badago.

Bestalde, azken urteotako martxari jarraituta, aurten ere tabernarientzat pintxo lehiaketa antolatu dute sanandresen ingu-

ruan. Hilaren 18, 19 eta 20an izango den lehiaketarako izena eman duten tabernak Oishi, Suberoa, Ambigü, Chalcha, Bossa, Batzokia, Koskor, Txoko, Maixa, Birjiñape, Ceba, Iruki, Kultu, Agiñaspi, Aterpe, Iturri, Trinkete, Depor, Zubi Gain, Paulaner, Foxtter, La Terraza eta Anardi dira. Eta hilaren 24an, ogia egiten ikasteko tailerraren osagarri modura, hitzaldi-dastaketa eskainiko dute Juantxo Aranburu eta Teba Gonzálezek, Oskar Trebiñoren laguntzarekin, Kulturean bertan, 20.00etatik aurrera.


## 260 laburmetraia lehian

**ASIER ERRASTI IKUS-ENTZUNENKOEN JAIALDIAK ETA LABURMETRAIA-LEHIAKETAK URTETIK URTERA** jende gehiago erakartzen dute eta 12. edizio honetan 260 lan lehiatuko direla azaldu dute antolatzaileek, Plano Corto elkarteok. Lehiaketara aurkeztutako laburmetraien proiektzioak astelehenean, hilaren 14an hasi eta 18ra bitartean izango dira, egunero 20.00etatik 21.30etara Coliseoan (areto txikiak batean). Jaialdiari amaiera emateko ekitaldia, berriz, hilaren 19an (zapatuan) egingo da Portalean, 19.30-etan eta or-

duan emango dituzte ezagutzera lehiaketako irabazleak. Finalista geratu diren lanak eta bestelako informazioa antola-



webgunean (www.planocorto.es) kontsultatzeko moduan ipini dituzte. Eibartarrei eskainitako atalean "Shelbe!!!" eta "Azken geltokia" sailkatu dira, euskerazkoen atalean "Eta amama?", "Lagun mina", "Moldetu" eta "Artista", sormenezkoen sailean "Zeinek gehiago iraun", "Akerbeltz, las brujas y el inquisidor", "La bruja" eta "Bihotz umel bat" eta gaztelerazkoen atalean "Hidden soldier", "Dicen", "Matar a un niño", "Room", "El grifo", "La huida", "Hibernando", "Morir cada día", "La media pena", "El astronauta en el tejado (The astronauta on the roof)", "Bu-



## F. Cuenca Kiroldgi argazki lehiaketan saritua

**KIROLGI FUNDAZIOAK ANTO-LATUTAKO KIROL ARGAZKILARITZAKO X. LEHIAKETAN**, zuri-beltzeko atalean 3. saria eraman du Klub Deportiboko Argazkilari-

tza Taldeko Federico Cuenca La-reategik (150 euro eta S.F.G Garaikurra), "Mendiko txirindulartza 1" izenburuarekin aurkeztutako lanarekin.

## laburrak

### LORELEI BUELTAN

Azaroan abiatu den Debagoieneko Osteran antolatutako emanaldietako batean, hilaren 26an (zapatua) 22.00etatik aurrera Getxoko Andres Isasi Musika Eskolak hartuko duenean, Asier Serrano eta Mikel Gorosabel "Norton" berriz ere Lorelei-rekin bueltan entzuteko aukera izango da (sarrera 8 eurotan salgai). Eurekin batera Etxe-k jardungo du. Eta bezperan, 25ean, Ermua Antzokian 22.15etan hasiko den "Hostoak" ikustera joateko sarrerak doan eskuratu nahi duenak, aldizkarian dagoen kupoia beteta zuzenean zozketan sartu eta horretarako aukera izango du.

### DJ GAUA

Bihar gauerdian hasi eta goizaldeko 04.00ak bitartean, Calbetón kaleko Living Cafe-n DJ Gaua egongo da martxan, Ima Txill Aut (Loramendi Rebolution) eta DJ Beato-rekin.

### BEGIRALEENTZAT IKASTAROA

Hilaren 10, 18 eta 25ean Udalak antolatutako eta Ttakun elkarteak emango duen "Begiraleek asko egin dezakete" ikastaroan jardungo dute Eibarko ikastetxeetako jangeletako 69 beharginek.

## Santa Zezilia kontzertua txistulariekin

**DOMEKAN, 12.30-ETAN, USARTZA TXISTULARI TALDEAK SANTA ZEZILIA KONZERTUA ESKAINIKO DU COLISEOAN,** Jose Miguel Lascurainek zuzenduta (1. txistua) eta Marisol Arrillaga soinujoalearen, Enrike Montero eta Elena Perez 2. txistuen, Asier Castelos eta Jabier Zorrakin silboteen eta German Ereña atabalaren parte-hartzearekin. Zuzendariak berak azaldutakoari jarraituta, "egitaraua prestatzean, orotari-


ko dantzen interpretazioa eskaintzeko asmoari jarraitu diogu". Soinuak lagunduta, besteak beste, pasodobleak, fandangoak, arin-arinak, txotisak eta beste hainbat entzuteko aukera izango da. Egitaraua osatzen duten piezak honakoak dira: "Arraño" (Sabin Bikandi), "Bertsolariak" (Txomin Agirregomez-korta), "Adiskide Lasai" (Jose Ignazio Ansorena), "La bahía blanca" (Sabin Bikandi), "Anaiak" (Sabin Bikandi), "Fanbaltz"



Usartza Txistulari Taldeak etzi eskainiko du kontzertu berezia.

(IñakiKareaga), "Galtzetaburu" (Sabin Bikandi), "Ana Mari" (Isidro Ansorena), "Auspo jotzaile-

aren ametsa" (Pepe Andoain), "Gurea" (Pepe Andoain) eta "Goiburu" (Pepe Andoain).



## Maite Arroita Jauregi Plateruenan

**DURANGOKO PLATERUENA KAFE ANTZOKIAN IZANGO DA MAITE ARROITAJAUREGI MUSIKAGILE EIBARTARRA** datorren astean, eguenean, 20.00etan hasiko den Kantuaren Kantoia, Jonan Hernández kazetari eta musikariak gidatutako berbaldi musikatuan (sarrera doan). Iaz lehenengoz antolatutako zikloan, kazetariak gonbidatutako artistarekin sortutako jardunari esker, bere ibilbide artistiko eta sorkuntzazkoan murgiltzeko aukera dauka publikoak, esperientziak zein bestelako gogoetak kantuekin tartekatzen dituen saioan.

Bestalde, orain egun batzuk Xabier Montoiak argitara eman duen "Montoiaren mundu mirregarria" disko berriaren grabazioan parte hartu du Arroita Jauregik, Ibon Rodríguezekin batera. Eibarren, Legarreko estudioan uztaila eta abuztua bitartean grabatutako lan honek Montoiaren 9 urteko ixiluneari amaiera eman dio. Mursegoko Maite Arroita Jauregik biolontxeloarekin, ahotsarekin, melodikarekin zein pianoarekin jardun du grabazioan. Lana ezagutzera emateko zuzeneko emanaldiak datozen egunotan hasiko dira eta abenduaren 4an, berriaz, Eibarren izango dira.

## MP5 Koskor tabernan

**GAUR GAUEAN, 23.30-ETATIK AURRERA, MP5 TALDE EIBARTARRAK KONZERTUA EMANGO DU** Koskor tabernan (sarrera librea eta doan). Kezka dantza taldearen inguruan orain hilabete batzuk sortutako taldea aurren gure herriko jaiak girotzen

ikusteko aukera izan dugu, estreinekoz sanjuanetan txosnetan eskaini zuten emanaldian eta, ondoren, Arrateko jaietan. Ekhi Zugasti, Aiert Ibarbia, Josu Garate, Luken Aranburu Arrieta eta Unai Txurrukak osatutako taldeak "rockero makarrero berbene-

## Bertsolari Txapelketarako sarrerak astelehenetik aurrera salgai

**GPUNTUA GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAREN FINALA ABENDUAREN 18-AN JOKATUKO DA** Donostian, Illunbe



zezen plazan eta, bertara joan nahi dutenentzat sarrerak salgai daude, Eibarren Arrate Kultur Elkartearen tabernan (Kultun), Ermuan Txalaparta tabernan eta Mallabian Izar Gorri tabernan. Abenduaren 12ra arte aipatutako tabernetan salgai ipiniko diren sarrera guztiak arruntak izango dira eta 18 eurotan erosteko moduan egongo dira. Bertsozale Elkarteko bazkideek eta 16 urtetik beherakoek, bestalde, [www.gpuntua.com](http://www.gpuntua.com) helbidean sarrerak eskuratzeko aukera ere badaukate.



MP5 taldekoak Bilboko Arriaga antzokian.

rotzat" dauka bere burua eta, edozein modutan ere, oso


abesti dantzagarri eta alaiak eskaintzen dituzte.

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, JOKIN, zure 8. urtebetetzian, sekulako mendizalía zagoz egiña-eta. Muxu haundi bat amama Amaia eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EIDER Aizpun Aragón, hillaen 9xan bederatzí urte bete zenduazén-eta. Famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, AIZEA Barrutia Zabala, domekan urtebete egingo dozu-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien eta, batez be, ahitzia Maialenen partez.




Zorionak, GANIX, harañegun bost urte bete zenduazén-eta. Aitatxo eta amatxoren partez.




Zorionak, LORE. Ondo pasa zure 10. urtebetetzian. Jarraitu haiñ alai eta jator. Milla muxu, potxoli, etxekuen partez.




Zorionak, NORA Arakistain Ormaetxea, zure lehelengo urtebetetzian. Aitta, ama eta etxeko guztien partetik.




Patxo haundi bat, TXAPELDUN, merezi dozu-eta! Etxekuak.




Zorionak, ANDER, martitzenian bi urte egingo dozuzelako. Segi holan, hain saltsero. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, DANEL Luque Colmenero, bixar zure lehelengo urtia egingo dozu-eta. Aitatxo, amatxo eta arrebaren partez.



Zorionak, IZARO! Gure etxeko sorgintxuak gaur hiru urte betetzen ditte-eta. Patxo potolo bat aitta, ama eta famelixaren partez.



Zorionak, ALAITZ, atzo lau urte bete zenduazelako. Aitta, ama, aitxitxa, amama eta zure anaixa Ugaitzen partez.



Zorionak, EKHI!, bixar urtebete egingo dozu-eta. Patxo mordua guraso, aitxitxa-amama, osaba-izeba eta lehengusu-lehengusiñen partez.




Zorionak, IRUNE, hillaen 16xan bost urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANA MARI, txapelduna! Ondo ospatu domekan zure urtebetetzia famelixarekin. Laztan haundi bat.

Ongi etorri etxera, LEIRE. Naia eta famelixa guztiaren partetik.



## zinea Coliseoan



### "La cosa"

Zuzendaria:  
David Ellis

**11n: 22.30**  
**12an: 19.45, 22.30**  
**13an: 17.00, 20.00**  
**14an: 20.30**



### "Los amos de Brooklyn"

Zuzendaria:  
John Singleton

**11n: 22.30**  
**12an: 19.45, 22.30**  
**13an: 17.00, 20.00**



### "Arriety y el mundo..."

**13an: 17.00**



### "Criadas y señoras"

Zuzendaria:  
Tate Taylor

**11n: 22.30**  
**12an: 22.30**  
**13an: 20.00**  
**14an: 20.30**

## HILDAKOAK

- Fernando Marcano Gallastegi. 86 urte. 2011-X-22.
- Lucio Narbaiza Gastelu. 70 urte. 2011-XI-3.
- Andoni Gisasola Solozabal. 83 urte. 2011-XI-5.
- Pedro Madina San Martin. 85 urte. 2011-XI-6.
- M<sup>a</sup> Carmen Jaio Ugarteburu. 68 urte. 2011-XI-7.
- Pedro Zubia Izquierdo. 52 urte. 2011-XI-7.
- Pello Zabala Berastegi. 63 urte. 2011-XI-8.

## JAIOAKOAK

- Juan David Tepes Onea. 2011-X-23.
- Julen Quindós López. 2011-X-25.
- Lander Delgado García. 2011-X-28.
- Nagore Payo Rua. 2011-X-28.
- Maite Soria Goikoetxea. 2011-X-29.
- Adam Saded. 2011-X-30.
- Paula Muguruza Morgado. 2011-X-31.

## horoskopoa

**ARIES**

Paretaren aurka jo eta jo zabiltzala ez al zara konturatzen? Probatu paretaren inguratzen, bide zuzenena ez baita zertan onena izan.

**TAURUS**

Galduta bazabiltza, hobe duzu galdetzea oker joatea baino. Ez ezazu lotsarik izan, ez duzulako zertan denetarik jakin-eta.

**GEMINI**

Animoz baxu ibiliko zara datorren astean. Ezertarako gogorik ez duzu izango eta lagunak zu animatzen saiatu arren, ez dute ezer lortuko.

**CANCER**

Zer gertatzen zaizu euritakoekin? Zenbat apurtu dituzu dagoeneko? Eta zenbat galdu? Agian onena gabardina bat erostea izango da.

**LEO**

Zure sentimenduak paperean idatzi eta uste zenuena baino gehiago maite duzula konturatuko zara. Hori erakustea tokatzen zaizu.

**VIRGO**

Hobe duzu lagunak diotenari kasu egitea. Eurek kanpotik ikusten dute egoera eta objektiboki. Gainera, zuretzat onena dena lortu nahi dute.

**LIBRA**

Galderaz beterik izango duzu burua astearen amaieran, gauza harrigarri asko gertatuko zaizkizu, baina ez duzu horiei erantzuten jakingo.

**SCORPIUS**

Horrela jarraituz gero, duzun diru guztiarekin amaituko duzu. Frenatu pixka bat, erritmoa moteldu eta saiatu zaitez zerbait aurretzen.

**SAGITTARIUS**

Ondo baino hobeto pasatuko duzu asteburua. Mesede handia egingo dizute egunotan pasatako uneek, hurrengo aste osoari aurre egiteko.

**CAPRICORNIUS**

Musika puntua ipiniozu zure bizitzari. Bestela, ez da dena aspergarriegia? Ikusiko duzu nola beste martxa batekin zabilzan puntutxo horrekin.

**AQUARIUS**

Harrigarria bada ere, gora begiratzean ikusten dituzun horiek Gabonetako argiak dira. Trankil! Oraindik hilabete daukazu Olentzero etorri aurretik.

**PISCIS**

Ulergarria da zuri ez gustatzea besteei itxaroten egotea; lagunak zuri itxaroten egoteagatik hasaretzea ulertzekoa da. Puntuaitatea zer den ba al dakizu?

**Barixakua 11****BERRIKUNTZA ASTEA**

**16.00.-** Ate Irekien jardunaldia. Sarrera doan. Armagintzaren Museoa (Portalean, 5. solairuan).

**MUNDUKO PAISAIK**

**17.30.-** "Txinako ipuin eta kondairak", ipuin kontalari saioa, Munduko Paisaiak kanpainaren testuinguruan. Umeen liburutegian.

**BEHEKO TOKIA**

**17.30.-** Kafetesnea eta pastak. Jarraian, Una Noche Sin Sabina taldearen emanaldia. Beheko Tokia jubilatutako etxean.

**SANANDRESAK PRESTATZEN**

**18.00.-** Sanandres jaietarako egitarau eskaldun, parekide eta parte-hartzailea prestatzeko bilera irekia. Jaixak Herrixak Herrixandako elkarteak deituta. Gaztetxean.

**MARIDAJEA**

**21.30.-** Krabelin jatetxeko maridaje jardunaldia, Marina García González enologoaren eskutik. Krabelinen (autobusa 21.00etan Ego Ginetik).

**KONTZERTUA**

**23.11.-** MP5 taldearen kontzertua. Sarrera doan. Koskor tabernan.

**Zapatua 12****BEHEKO TOKIA**

**11.00.-** Meza, hildako bazkideen alde. Karmengo Amaren elizan. Jarraian, piskolabisa. Beheko Tokia jubilatutako etxean.

**AUZOLAN EGUNA**

**11.00.-** Auzolan eguna. Eibarko gaztetxean (Iparragirre kalean).

**BERRIKUNTZA ASTEA**

**16.00.-** Ate Irekien jardunaldia. Sarrera doan. 17.00/19.00etara zuzenean eskopetagitza ikusteko aukera. Armagintzaren Museoa (Portalean, 5. sol.).

**MAGOSTO JAIA**

**17.30.-** Magosto jaia, As Burgas Galiziako Etxekoaren eskutik: gaztaina erreak, txorizo pintxoak eta Ribeiro ardoa salgai ipiniko dituzte. Urkizuko parkean.

**EXTREMADURAKO FOLKLOREA**

**17.30.-** Extremadurako folklorea jaialdia. Coliseoan.

**KALEETAN KANTUZ**

**19.30.-** Kaleetan Kantuz-ekoen irteera. Untzagan hasita.

**MUSIKALDIA**

**20.00.-** Andrea Toschi-ren organo kontzertua. San Andres elizan.

**Domeka 13****PINTURA LEHIAKETA**

**09.00.-** XXXIV. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa. Izen-ematea 09.00etatik 11.00etara Portalean.

**BERRIKUNTZA ASTEA**

**10.00.-** Ate Irekien jardunaldia. 11.00etan bisita gidatua hasiko da. Sarrera doan. Armagintzaren Museoa (Portalean, 5. solairuan).

**BAKAILAO TXAPELKETA**

**11.00.-** Eskolarteko VIII. Lehiaketa, Bakillauaren Kofradixiak antolatuta. Untzagan.

**MAGOSTO JAIA**

**12.00.-** Magosto jaia, As Burgas Galiziako Etxekoaren eskutik: gaztaina erreak, txorizo pintxoak eta Ribeiro ardoa salgai ipiniko dituzte (12.00etatik 13.00era umeei gaztainak doan banatuko dizkiete parkean).

**KONTZERTUA**

**12.30.-** Usartza Txistulari Taldearen Santa Zezilia kontzertua, Jose Miguel Laskurainek zuzenduta. Coliseoan.

**Astlehena 14****GAZTAINERRE**

**18.00.-** Gaztainerre ospatzeko, gaztainak banatuko dituzte. Untzagako jubilatutako etxean.

**AURREKONTUEN AURKEZPENA**

**19.00.-** Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2012ko aurrekontuen aurkezpena. Armeria Eskolan (aretoan).

**GAZTAINERRE**

**19.00.-** Ondra Janak Tabernaz Taberna, AEK Euskaltegiaren eskutik.

**LABURMETRAIAK**

**20.00.-** Asier Errasti laburmetraia jaialdiko lanen proiektzioa. Sarrera doan. Coliseoan.

**Martitzena 15****IKASTEN**

**10.00.-** "Envejecimiento y bienestar, un nuevo modelo de vivirla dependencia", Adindu-ko Elena Iraolagoitiaren eskutik. Armeria Eskolan.

**IKASTAROA**

**17.30.-** "Komunikazioa elkarrean. Ba al dakigu komunikatzen?" ikastaroa. Portalean.

**IRAKURKETA KLUBA**

**18.00.-** Umeen irakurketa kluba. Umeen liburutegian.

**EKITALDI POLITIKOA**

**19.00.-** "Eraiki zubia Euskal Herriari", Amaiurren ekitaldia. Armeria Eskolan.

**LABURMETRAIAK**

**20.00.-** Asier Errasti laburmetraia jaialdiko lanen proiektzioa. Sarrera doan. Coliseoan.

**Eguaztena 16****IKASTEN**

**10.00.-** Mendi ibilaldia, Gasteizera (Salburuara). Autobusa Ego Ginetik irtingo da.

**HAUTESKUNDE KANPAINA**

**19.00.-** PSE-EE-ren ekitaldia. Odón Elorza, Iñaki Arriola eta Miguel de los Toyos. Portalean (areto nagusian).

**LABURMETRAIAK**

**20.00.-** Asier Errasti laburmetraia jaialdiko lanen proiektzioa. Sarrera doan. Coliseoan.


**Eguena 17****JARDUNALDIA**

**09.30.-** Debabarreneko VII. Turismo Jardunaldiak. Aisia Kresalan (Deban).

**IKASTAROA**

**17.30.-** "Komunikazioa elkarrean. Ba al dakigu komunikatzen?" ikastaroa. Portalean.





## erakusketak

– Azaroaren 16ra arte

**JUAN ANTONIO PALACIOS**en "Kostaldea" argazki erakusketa. Debako turismo bulegoan (Iifar kalea, 4an, Deba).

– Azaroaren 18ra arte

**JOSE LUIS IRIGOIEN**en "Jordania" argazki erakusketa. *Doherty's tabernan* (San Prudentzio, 6an, Matienan).

– Azaroaren 19ra arte

**ESTHER FERNANDEZ DE MARURI** margolariaren koadro erakusketa. *Untzagako Jubilatut Etxean*.

– Azaroaren 20ra arte

**ARRATE ETXEBERRIA**ren margo erakusketa. *Topalekuan*.

**INDALECIO OJANGUREN XXIV. ARGAZKI LEHIAKETA**n saritutako eta aukeratutako beste lan batzuen argazki erakusketa. *Portalean*.

**"EGIPTO. BEGIRADA ERROMANTIKOA"**, besteak beste Santi Entrena eibartarraren bildumako piezen erakusketa. Sarrera doan. *Irungo Oiasso Museoa* (Irun).

– Azaroaren 23ra arte

**"MEDUELELAVIDA" RUBEN**en erakusketa berezia. *Karrika tabernan*.

– Azaroaren 30era arte

**DAVID RODRIGUEZ**en "El clamor del bosque" argazki erakusketa. *El Ambigú kafetegian*.

**PATXI JATO**ren argazki erakusketa. *Portalea tabernan*.

**"JUAN LUIS ULAZIA OROITUZ"** argazki erakusketa. *Klub Deportiboan*.

**MUNDUKO PAISAIK**, Txinari eskainitako erakusketa. *Juan San Martin Liburutegian*.

**FERRARI TESTAROSSA** automobila ikusgai. *El Corte Inglés-ean* (beheko solairuko sarreran, gizona zeko departamentuaren aldamenean).

## ikastaroak

– **Ogi-ogia tailerra (prozesu naturala, legamia barikua).**

Non eta noiz: Azaroaren 19an, zapatua, 09.30/13.30, Arrate Kultur Elkartearen. Izen-ematea: 943-202299, arratekultu@gmail.com edo Arrate Kultur Elkartearen bulegoan, martitzen eta eguenean, 17.00/20.00. 30 euro bazkideek, 32 euro gainontzekoek.

## farmaziak

**11, barixakua**

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

**12, zapatua**

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

**13, domeka**

EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)

**14, astelehena**

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

**15, martitzena**

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

**16, eguaztena**

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

**17, eguena**

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

**18, barixakua**

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

## lehiaketak

– **Pintxo-lehiaketa (tabernariak).**

Noiz: Azaroaren 18, 19 eta 20an. Non: Oishi, Suberoa, Ambigú, Chalcha, Bossa, Batzokia, Koskor, Txoko, Maixa, Birjiñape, Ceba, Iruki, Kultu, Agiñaspi, Aterpe, Iturri, Trinkete, Depor, Zubi Gain, Paulaner, Foxtter, La Terraza eta Anardi tabernetan.

– **Gaztelekurako Logotipo Lehiaketa.**

Norentzat: 12-17 urte bitartekoentzat. Bete-beharrekoak: Indianokua gaztelekua agertzea. Lanak entregatu / informazioa: Azaroaren 20a baino lehen, Indianokua gaztelekuan (Muzategi, 3).

– **XIX. Bakailao Txapelketa "San Andres Saria".**

Noiz eta non: Azaroak 27, 11.30etan Untzagan. Izen-ematea eta informazioa: Azaroaren 14ra arte (14.00etan itxiko da epea), Pegoran.

## telefono jakingarriak

SOS delai .....112  
Pegora .....010  
Udaletxea .....943 70 84 00  
Portalea .....943 70 84 39  
Udaltzaingoa.....943 20 15 25  
Mankomunitatea943 70 07 99  
Debegesa.....943 82 01 10  
KIUB .....943 20 38 43  
Epaitegia .....943 03 34 00  
Iberdrola .....901 20 20 20  
Naturgas .....902 12 34 56  
DYA Larrialdiak.943 46 46 22  
Gurutze Gorria..943 22 22 22  
Mendaro osp.....943 03 28 00  
Anbulategia.....943 03 25 00  
Torrekua .....943 03 26 50  
Errepideak.....902 11 20 88  
Ertzaintza .....943 53 17 00  
Eusko Tren .....902 54 32 10  
Pesa .....902 10 12 10  
Taxiak.....943 20 30 71  
.....943 20 13 25  
Alkohol.Anon. ..629 14 18 74  
Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Soraluzen bost urte dituen apartamentua salgai. Logela bat, jangela, sukaldea eta komuna. Igozailua. 145.000 euro, negoziagarriak. Tel. 687-537575.

– Jardiñeta kalean pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kalefakzio zentrala. Eguzkitsua eta bizitzera sartzeko moduan. Etxe osoan musika entzuteko aukera. Internet banda zabala. Tel. 688-873807.

– Untzaga inguruan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Terraza txiki bi. Oso eguzkitsua. Igozailua. Tel. 615-744460.

– Etxebizitza salgai Eibarko erdi aldean. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta trasteroa. Igozailua. Guztiz berriak eta argitsuak. 126 m<sup>2</sup>. Tel. 626-203838.

– Eibarren pisua salgai. 3 logela, egongela-jangela, sukaldea, komun bi, garajea eta trasteroa. Eraiki berria eta jantzita. Saltzeko presa dago. Tel. 618-400241 eta 648-848581.

### 1.2. Errentan

– Asola-Igartzan babes ofizialeko atikoa alokagai denboraldi batean kanpoan lan egin behar dudalako. Inkilinoaren soldataren araberrako prezioa (186-426 euro artean). Garajearekin. Berria, estrenatzeko. Tel. 617-926344.

– Pisua hartuko nuke alokairuan konpartitzeko. Tel. 688-819475.

– Familiak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 669-966611.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Bi garaje alokagai Abontzan. Bata marraduna eta bestea itxia (handia). Tel. 617-688311.

– Lokala edo garajea behar dut altxariak gordetzeko. 70 euro ordaintzeko prest hilerro. Tel. 678-641500.

– Ipuruako Eroskin garaje berria alokagai. Itxia eta 21 m<sup>2</sup>-koa. Tel. 652-764566.

– Asua-Errekan garajea alokagai. Itxia. Tel. 616-959625.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da kamarera jarduteko, sukaldari-laguntzaile moduan, garbiketarako egiteko eta nagusiak edo haurrak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 608-376387.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

### 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta haurrak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 608-474923.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko, asteburuetan barne. Tel. 618-052967.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 657-396018.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 672-572526.

– Emakumea eskaintzen da arratsalde garbiketarako egiteko, haurrak edo nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Baita asteburuetan ere. Tel. 616-397348.

– Neska eibartarra eskaintzen da kamarera jarduteko. Esperientzia taberna eta jatetxeetan. Tel. 627-281938.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 616-826542.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 669-311385 eta 636-362251.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 676-942532.

– Mutila eskaintzen da igeltsero moduan eta garbiketara lanetan jarduteko. Tel. 689-286167.

– Emakumea eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 690-925929.

– Emakume erizaintza-laguntzailea eta ileapaintzaile tituluduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-898349.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 682-533597.

– Gizona eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 657-395980.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da gauetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 651-836353.

– Gizona eskaintzen da kamarero jarduteko. Tel. 943-531048.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 681-322442.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 608-293711 eta 943-744492.

– Gizona eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Goizez deitu. Tel. 943-208529 eta 606-110693.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 665-301550.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-847947.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero jarduteko, zaintzaile moduan, pintore lanak egiteko etabar. Tel. 615-720384.

– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, haurrak edo nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile moduan eta kamarera jarduteko. Tel. 609-148861.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta haurrak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 608-474923.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan edo igeltsero lanetarako. Tel. 692-332871.

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 650-386345.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko jornada erdiz. Tel. 680-973549.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko arratsalde. Tel. 634-661438.

– Gizonetako eskaintzen da kamarero jarduteko. Tel. 658-371925.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 638-047847.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita orduka ere. Tel. 689-243694.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 669-688755.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 695-303237.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 650-152866.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 655-384877.

– Neska eskaintzen da ileapaintzaile jarduteko etxerik-etxe. Prezio onean. Esperientzia. Tel. 662-204193.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 659-037882.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 648-603029.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Irakaslea behar dut LH-ko 3. mailako mutil bati klaseak emateko. Tel. 669-293462.

### 5.2. Eskaintzak

– Batxilergoaren Matematika klase partikularrak emango nituzke. Tel. 695-718855.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– 27 pulgadako Philips telebista salgai, orma-euskarrria eta TDT barne. 120 euro. Tel. 943-120308.

– 7-8 urteko neska erdiko eskiko arropa eta berokiak salgai. Egoera onean. Tel. 617-171510.

– Binirozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 943-572057.

– Gurgildun aulkia salgai, etxean erabiltzeko (estua). Gehigarriekin. Prezio onean. Tel. 943-120308.

– Arropa-lehorgailua salgai. Balay markakoa. 50x65x44. 200 euro. Tel. 626-144098.

### 6.4. Bestelakoak

– Gaztetxeko sukaldariko materiala behar da. Altxariak ere bai. Tel. 635-191352.

Azaroaren 3tik 27ra

AURREZTU  
20€  
ARTE  
BEROSKI AUKERARAZETA  
BATEAN



CÓCTEL

EROSKI  
KOMERTZIAL GUNEA  
OTAOLA Etorbidea, 5

Pau Claris kalea, 132 - 5. solairua  
08009 -BARTZELONA-

\*2tik 12 urtera arteko neskenzako lumadunak: poliester-ekoak % 100ean. Eskainiza etiketa duten berokiei, lumadunei, parkiei, jakiei eta txamarrei aplikatuko zaizkie.



**berriro ere  
EIBARREN**

**'ZAZPIKOLORUA'  
ikuskitun berria**

Irailaren 30erako kuota eguneratuta duten  
**BAZKIDEENTZAKO AURRE-SALMENTA**  
azaroaren 14tik 25era (6'50 euro)

BAZKIDE BAKOITZAK: 3 SARRERA GEHIENEZ  
Salmenta ordutegia ...eta kittol-n: 08.30-14.30  
eta 16.00-19.30 (astelehenetik barixakura)

**GAINONTZEKOAK: 26tik aurrera** (7'00 euro)  
e&m argazkidenda, El Tío Palancas eta Gozoki-n

**4 saio aukeran**  
**Abenduaren 10ean**  
**16.30 / 19.00**  
**Abenduaren 11n**  
**16.00 / 18.30**

# TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak



**T. Etxebarria, 7**

**Tel. 943 70 23 84**

**Tel. 943 70 23 78**




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

# EUKi

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

## KOMUNITATEAK